


MENDIBURU S. J.

S. FRANCISCO XABIER'EN

Bederatzuruneke irakuraldia









M-2695+  
R-15463

ATV 10.182

# S. FRANZISKO XABIER'EN

BEDERATZURUNENKO IRAKURALDIAK

A. SEBASTIAN MENDIBURU, S. J.



BILBAO

EL MENSAJERO DEL CORAZÓN DE JESÚS

1922

IMPRIMI POTEST

GABRIEL VILALLONGA, S. J.

Praep. Prov. Cast.

NIHIL OBSTAT

JULIANUS EGUIA, S. J.

IMPRIMATUR

LEOPOLDUS EPISCOPUS

VICTORIENSIS

5 Maii 1922

---

## IRAKURLEARI

«Nere izkerea bizkai izkera edo euskera da» (1), dio Xabier Deunak bere idazki eder batean; eta berari eriotzaldian lagun egin zion txinatararen esanetatik atera dezakegu, euskeraz Yaungoikoarekin itz eginaz il zala Belgundari edo Berionlari Deun aundirik aundienetako ura. Baña jzabarikeri negararia! ezer gutxi egin degu euskaldunok euskeraz, orain arte beintzat, napaik ospetsuenaren izena ta egintzak argitaratuaz, beraganako zaletasuna zabaltzen.

Oker au zuzendu naiaz, argitaratu ditugu ilunpean zeuden «Irakuraldi» auek. Orain berreun bat urte dirala Oyarzun-napa aldean egiten zuten euskeran eginak daude. Aita Mendiburu'rena izan ere ta, euskera eder eta garbia da; baña ez uste izan irakurle guztien-

---

(1) Mon. Xav. I, 279.

*tzat itz guztiak argiak eta yakiñak dirala. Agitz, anitz, suleze, al, eta onelako beste itz batzuek arkituko dituzu, napañaldeko itz eder egokiak. Gure euskera anitzek uste baño ugariegoa da itz eta esaeretan; gu beriz (egia esan nai badegu) euskeraz ezyakin samarñak gerala, aitoñtu bearñik ere ez dago.*

*Añtu bada liburutxua; ta, bearñ bada, Iztegi bat zerekin dezula, irakuñi ia bereun urte dirala mintzatzen zan euskera garbian Xabierñen anai euskaldun eta euskaltzale zintzo batek esango dizkitzun gauza egokiak.*

*Xabierñ goratzeko aurtengo urtea urte berezia dala ba-dakizu. Goratu, bada, bere izkuntza garbi zoragarñian euskaldunik bikaiñenetakoko baten aoz.*

*Ona emen liburutxoa obeki irakurtzeko oarñ batzuek:*

a) *Bere abizena Xabierñ beti ipiñi degu, berak onela ipiñi oi zualako.*

b) *Idazkera bat edo beste erabili bearñ genduela ta, autu bearñ dana autu degu: Euskaltzaindiarena.*

c) *Aita Mendiburuñren «Bederatzurñnerako irakuñaldiai» guk Bederatzurñnerako otoitzak ezarñi dizkiegu; liburu batean bertan irakuñal-*



*diak eta otoitzak batutzea egokiago iruditu zaigu eta.*

d) *Gañerakoan irakurgaiak arkitu bezela argitaratu ditugu.*

e) *Ikusiko dituzu erderazko itz batzuek baita beste batzuek beñiak diruditenak ere. Erderazkuak, Aita Mendiburenak dirala-ta, euskera garbira biurtzeko guztiz eñazak izan añen, biurtu gabe utzi ditugu; beñiak diruditenak ez dira beñiak edo guk asmatuak, baizik aspaldi aspaldikoak, Mendiburu berarenak. Itz garbi ta egoki oyekin erderazko guztiak euskera garbira biurtu litezke.*

YORKE AGIRÉ, S. J.

blak eta onotzek batenaz egokizko irudim

zaburua onotzek eta in onotzek, zira zira

(d) Gaiterikoa irakurizko irakur baxela

irakurari diruguzko irakur baxela

(e) Ikusko diruguzko irakur baxela

baxa baxa baxurak baxurak baxurak baxurak

Erderazkua, Aita Mendibururak baxurak

erderazkua baxurak baxurak baxurak baxurak

tenak ex diru baxurak edo gurk asmatuak baxurak

apandi aspaldikoa / Mendibururak baxurak

Itz gauri itz egoki otekin erderazko gauriak

erderazko gauriak baxurak baxurak baxurak

Yokk Yokk, 2011, 2011

Yokk Yokk, 2011, 2011

Yokk Yokk, 2011, 2011

Yokk Yokk, 2011, 2011

Yokk Yokk, 2011, 2011

Yokk Yokk, 2011, 2011

Yokk Yokk, 2011, 2011

Yokk Yokk, 2011, 2011

Yokk Yokk, 2011, 2011

Yokk Yokk, 2011, 2011

Yokk Yokk, 2011, 2011

Yokk Yokk, 2011, 2011

---

## S. FRANZISKO XABIEŔ'EN BEDERATZURUNeko IRAKURALDIAK

Goya. Andia da edozein

Euskaldunen anitz eritan ta itxe askotan egiten da S. Franzisko Xabier'en bederatzuruna. Jesus'en Konpañiko elizetan egiten denean, egiten dutenei egunoro ematen zaye S. Franzisko Xabier'en zerbait beŕi. Ta beste elizetan ta itxetan egiten dutenei ere eman dakien, egiñak dira urengo irakuraldi guziak, eta egiñak, egun bakoitzerako berea. Irakur' ditezke, bederatzuruna baño len, edo egin ondoan. Irakur' ta adi ditezen, lanik galtzen ez dela, bederatzurun au egin diteke, elkar' ditxezkon yai-igandez. Zenbait eritan beintzat gis onetan egiten da Yesus'en Biotz maitagar'arena.

2. FRANZISKO XABIER'EN  
BEDERATZURUNEKO IRAKURALDIAK

Euskaldunen antz eritan ta itxe asko-  
an eritan da 2. Franzisko Xabier'en  
bederatzuruna. Jesus'en konpainiko eli-  
zean eritan denean, eritan dutenei  
guztore emanen zaie 2. Franzisko Xa-  
bier'en zerbitu berri. Ta beste elizetan ta  
elizan eritan dutenei ere eman dakien,  
eritak dira nirengo irakuraldi guztiak,  
ta eritak, erun bakoitzerako berria,  
irakur ditezke, bederatzuruna bano ten,  
edo erin ondoran. Irakur ta erdi ditzon,  
eritak gaitzen ez dela, bederatzuruna an  
erit ditzke, eritak ditzekon vai-igandex.  
Zerbitu eritan beritza ta onelan eritan  
ta Jesus'en Biotz mailagaritaren.

---

## LENBIZIKO EGUNERAKO IRAKUÑALDIA

*Mirabilis Deus in sanctis suis. Ps. 67, 36*

**Gaya. Andia da edozein  
idoñekori laguntzeko**

**S. Frantzisko Xabier'en eskua**

S. Franzisko Xabier'en eskufik aritu duten on bakoitzaren señailea utzi ba'lute guziak, .aren aldare bazterak arkituko lirake gaur milagro seña andiz ongi beteak. Ekuskizun txarmari edeñak dira, dio Salmari onak, bide batez ta beste bere santu andiei Yangoikoak eragin diezten gauzak. Eta guzien artean, artako bezala, berezi dituen santu zenbaitenak.

Aditu ta ekusi dugunaz, santu gauz andigile ta milagrari orietatik da mundu

guziaren, ta berezki euskaldun onen onrari, S. Franzisko Xabier. Alakoak, ain andiak eta anbat dira, Yangoiko maitagañiak munduko bazter guzietan eragin diozkan gauzak.

Au egia dela, aisa siñistuko dezu, idoreko bi bazteretan egin dituenak aditu ezkeru.

Bestetan il ba'zen ere, Indietako Goa deritzan eri batean arkitzen da S. Franzisko Xabier'en gorputza. Eri onetan ba-da obispoa; ta obispoaren probisor jaunak yakin nai izandu zuen zenbat ziran an bertan ta ango obispaduko erietan S. Franzisko Xabier'ek egin zituen zortzi-eun, urte gutiren buruan, Santu onek an egiñak. Eta arkitu zuen, yuezak bezala, ekusi zituen zortzi eunak etzirala denbor labur berean, Santuak an egin zituenen laurdenak ere. Ta kontuak zuzentzeaz etsirik, utzi zuen bukatu bage bere egiteko ta lan luze au.

Bada, Goa'ko milagro berak onenbat ba'dira, ¿Peskeri'koak, Malabar'en arte-

koak, Malaka'koak, Kotxintxina'koak, Yapon'go éreinu andietakoak, Mairuen islakoak, eta Santu bera ibili zen an bertako beste isletakoak, éreinetakoak eta bazterretakoak zenbat ote dira? Ez da éraz au guk adiraztea. S. Franzisko Xabier' il ezkerro, ango bazter' zenbaitetan sartu dira danesak. Danesen predikari erejeak onez ezin eramanez beren sermoyetara S. Franzisko Xabier'ek Peskeria'n batayatu zituenen umeak, soldaduz beldurtu ta eraman zituzten zenbait aldiz beren elizara. Baña aratzen ziran inditarak, arizko gizonak ba'lira baño geyago, yasotzen etzuten erejeen itz baka' bat ere. Au ekusita, predikari erejeak esan zien bein inditar' bere adilei:

—¿Zergatik siñisten ez dezue nik esaten dizuedana?

—Zeren zuk egiten ez dezun Yangoikoaren legea emen erakutsi zuen San Franzisko Xabier'ek egiten zuena — erantzun zioten Peskeri'ko inditarak.

—¿Zer ez?— esan zien inditaraei danes predikariak.

—Milagrorik ez — erantzun zioten predikari erejeari inditarak —. Eta ori — esan zioten — leneko gure Predikari San Franzizko Xabier'ek milagroztan ta milagroztan agertzen zigun bea' bezalakoa ta zuzena zela erakusten zigun guzia. Ark ez bezalako gauzak erakusten dituzuk; baña erakusten dezunaren alde ez dezu oraindik milagro bat ere egin. Egizkitzu, bada, bein ark adiña milagro; ta ekusiko dugu, zuk diguzuna artzeko, utzi bea' dugun edo ez, S. Franzizko Xabier'ek emen erakutsia. Baña milagrorik egiten ezpa' dezu, zure itzik, ezpa'liz baño geyago, ez dugu guk siñistuko.

Zenbat eta zenbat milagro, bada, San Franzizko Xabier'ek, gure Lege santa erakutsi zuen inditaren eun ereinu ta geyagotan egin ote zituen, milagroka gauzak erakusten zituenak bezala? ¿Nork au adirazi? Guk dakiguna da,



San Franzizko Xabier'ek bere eskuz batayatu zituela miletan mil ta bereun mil gentil; ta etzituen bataitu, beragandik Legeko misteri andiak ikasi zituztenen laurdenen laurdenak ere. Eta Indi bere-tako bazteretan dabiltzan misionistak gaztigatzen dutenaz, S. Franzizko Xabier'ek an len milagroak eta milagroak zeriozkala, erakutsi zuen Lege santa, orain ere milagro beriz ta beriz zutik daduka; edo geroztik ere Lege santa berak eskatzen dituen guziak egiten ta egiten ari da. Ekus zazu, bada, zenbat eta zenbat diran, len ta gero an S. Franzizko Xabier'ek egin dituen gauz andi ta milagro txarmagariak.

Indietan izandu zena, da munduko beste bazter guzietan ere S. Franzizko Xabier'. Ta bazter guzietan da an bezain milagraria. Kalabri'ko erri txiki Potamo'n egin dituenak berak bere dute milagroz libru bat; eta denbor ez luzean yuezak an bildu zituztenak ba-dira bereun ta berogei ta bi. Ta beste etietan, probin-

tzietan, ta mundu guziko éreinuetan egin dituenak bildu ezkeru, ba-lirake eunka libruak betetzeko diña.

Anitz gisakoak izandu dira S. Franzisko Xabier'ek an ta emen egin dituen milagro andiak; eta guziak izandu dira eskatzen zituen bea'ari zegozkanak. Au zuk ekusteko, agertuko dut orain bat edo beste.

Zerbait ondasun zeraman soldadu bat utzi zuten bage itsas-lapu'ak; eta zuenarekin batean bizia galtzeko beldu'ez, ontzitik itsasora saltatu, ta igerian itsas bazte'era zen; ta al zuen bidez bere burua estalita, asi zen eskean; ta eskean zebilela, besteen artean arkitu zuen San Franzisko Xabier, aldi artan an predikatzen zebilena, ta Yangoikoaren ize-neari eskatu zion zerbait.

Uríkariz eskua bere sorbaldan eza'ri, ta «ez dut ko'radu bat ere», erantzun zion S. Franzisko Xabier'ek. Eta begiak gero zerura giratu, otoitz zerbait egin, ta esan zion bea'itsu gaxoari; «Yangoiko

berak dizula oraingo zure bearak eskatzen duena». Santuaren aotik au adituta, agur umil bat ari egin ta artu zuen soldadu beartsuak bere bidea, bestetan bilatzeko, an arkitu etzuen. Ta etzen luzaro egondu arkitu bage; bada aren ondotik kendu ta laister ots egin zion San Franzisko Xabier'ek, eta ura aren aldetik kendu ezker, Santuaren sakelan egin edo utzi zituen Yangoikoak, munduan egiten ziranak ez bezelako diru zenbait. Eta an eskua sartu, ta atera zituen urezko ta zilarezko berogei ta amar; ta eman ziozkan soldadu beartsuari, esaten ziola; ora Yangoikoak bidaltzen digun limosna; on dagizula; baña begira, nondik dezun ez esan mundukori bein ere.

Baña soldaduak ura artuta, bere pozarekin lasterkari eman, ta asi zen oyuka esaten; ¡milagroa, milagroa!, ta au ziola, ba-zebilen pozez batetik bestera. ¿Zer milagro da, gizona — galdetu zioten aditzen zutenak — gaur zuk banatzen dezu-

na?— Orain S. Franzisko Xabier'ek egin duen bat. — ¿Zer egin du zurekin santuak, gizona?— Oña, erantzun zien, nere beña estaltzeko, eman dit gizonek oraindik ekusi ez duen diru sail au. Ta agertu zien diru guzia. Diru beña ekusita, an arkitzen ziran merkatari ta dirutan zekiten beste guziak, esan zuten etzela munduan gis artako dirurik; ez eta diru, ark bezain uré ta zilar ona duenik ere; ta ura berak debozioz artu, ta eman zioten zebilen dirutik beste anbeste, ta anitz geyago. Ta soldadu beñtsuarentzat anditu zen S. Franzisko Xabier'en milagroa.

Milagrozko diruarekin atera zuen aldi onetan S. Franzisko Xabier'ek soldadu au bere gabentz eta beñ anditik; eta beste batez, besteren diruz estali zuen beste baten beña ta gabentza. Baña diru emaleak eman zion, ta zuen diru guzia baño geyago balio zuen, zeruko beñi on bat ordañez ematen ziola. Yangoikoa galtzeko bidetan arkitzen zen

neskatx batena zen, aldi onetan S. Franzisko Xabier'ek estali zuen beara, ta bere adiskide andi Pedro Bello'ren diruz estali zuen ark onen beara au.

Ba-zekien S. Franzisko Xabier'ek zein andia zen Pedro Bello'ren urrikaltza; ta aldi onetan argana yoan, ta eskatu zion egin oi zituen lanetatik baterako, diru zati on bat; baña zenbatekorik agertu bage. Bere adiskide baten itxean, ta kartak eskuan zituela, arkitzen zen aldi artan Pedro Bello; ta diruaren kutxako giltza atera, ta ura eskura eman, ta esan zion San Franzisko Xabier'i, yoan ta ar zezala nai zuen guzia; ta gelditu zen bera yokatzèn, len bezala.

Bere giltzarekin yoan, ta artu zituen San Franzisko Xabier'ek irureun dukat; zeren oriek ziran aldi artako neskatxaren bearak eskatzen zituenak; eta bere giltza itzuli-biurtu zionean, esan zion Pedro Bello'ri zenbat zen artu zuena. Ta au adituta, ¿zer? — esan zion Pedro Bello'k — ¿miseri ori baizik ez? Kutxan bazeu-

den ogei ta amar mil dukat bezela; ta giltza eman nizunean, erdiak ba'zen ere artuko zenituela uste nuen. Uréngo aldian laburtasun orélakotan ez da nerekin zer ibili.

Esker mil, Pedro Bello — esan zion San Frantzisko Xabier'ek —. Aldi onetan ez nituen irureun baizik bear, ta irureunak ere, iru edo amabost mil eman ba'zenizkit adiña estimatzen ditut, eta artu ditudan irureunena ez ezik, eman nai zenizkidan amabost milen saria ere egunen baten zuk Yangoikoaren eskutik zeruan artuko dezu. Ta bertatik nik ematen dizudana da, gerorako beñi on bat. Eta ematen dizudan beñia da, bere zerurako Yangoikoak zaduzkan zori oneko gizona zarala; ta il baño len, Yangoiko berak agerturik, yakiñen dezula zere il denbora, il zaitezen zerurako dagon doatsuari dagokan gisan, ta zere neurí guziak ongi artu, ta bear den eran zere gauz guziak prestatzen dituzula.

Indietako ondasun guziak ekañi

ba'liozka baño poz eta atsegintz andia-  
goarekin aritu zuen Pedro Bello'k San  
Frantzisko Xabier'en zeruko beñi au; ta  
len ona ba'zen, zen bezala, ordu artatik  
asi zen agitz obetzen, aldi artaraño baño  
gauz on geyago ta agitz obe egiten, ta  
zituen ondasunak beartsu gaxoen artean  
ta beste gauz on askotan banatzen. So-  
segantz andian ta zerurako gauzak pres-  
tatzen ari zen gizona bezala, bizitu zen  
anitz urtez; ta zartuta gero, izandu zuen  
Yangoikoagandik bere il egunaren beñia.

Beñi on onen eskeñak Yangoikoari  
eman, ta zuzendu zituen itxeko bere gau-  
zak; eta bere il-otzirako ta il-ondoko  
mezetarako beñi zuena berezita, gelditu  
zitzayon beste guzia zuzendu zuen eli-  
zetara ta beartsu gaxoen eskura; ta asi  
zen itxez itxe bere adiskidei azken adio  
esaten. Burutik irauzirik zebilelako go-  
ganberan sartu ziranak, fit aski ta laster  
akordura ziran. Bada ekusi zuten, len  
bein ere baño akordu obean egiten zi-  
tuela bere gauz guziak. Azkeneko bere

egunetan etzuen konfesio, komunio, meza entzute ta gauz onak eta onak egitea baizik egiten; ta zekien eguna etoñi zenean, yoan zen bere aide ta ezagun guziekin elizara; eskatu zuen kanta zezatela ilen meza. Au asitzean, etzin zen gorputz ilak egoten ziran mai gañean, oyal beltz bat gañetik zuela. Meza azkeneko *requiescat in pace* adituta, kendu zioten gañeko oyala, ta arkitu zuten ila.

Ora zer zen S. Frantzisko Xabier, bizi zen aldian ere: ora zein eskerduna; ora zein milagraria idorean bizi ziranekin. Orduan zena, da orain ere; ta bazoazke argana, Yangoikoagandik beañ dezuna erditsiko dizulako uste osoan. Baña zoaz, Pedro Bello'k bezala, bizitz on batekin eriotz on bat erdisteko asmoan. Bai añen, bai.



---

## BIGAÑEN EGUNEKO IRAKUÑALDIA

**Gaya. Andia da, itsasoz dabiltzanei  
ongi egiteko,**

**S. Frantzisko Xabier'ek duen eskua**

*Mirabiles elationes maris. Ps. 92,4*

Idoñean bizi diranak bizi dira anitz  
etsayen erdian. Bada ba-dira idoñean  
lapur gaistoak; ba-dira suge izurdunak;  
ba-dira artz-otsoak; ba-dira dragoi itsu-  
si, zakur amuratu, pozoi, gos-egañi,  
eguraldi agor, ta bazterak galtzen dituz-  
ten ubelde, añi, aize ta elementak; baita  
gizonari gaitz egiteko diran beste gauz  
anitz asko ere. Ta gizonen baitan, zen-  
bait aldiz beintzat, ez da arkitzen orenbat  
gaitzgai garaitzeko diña indar ta esku;

ta garaituko ba'dira; bea' izaten da zerukoren baten laguntza.

Laguntz beraren bea'rean arkitzen dira, eta gutitan ez, itsasoz dabiltzan mariñel ta beste zenbait ere. Bada aizea ta itsasoa agitz ase'etu ezkeru, laster ta fite edo anitz luzatu bage palakatzen ezpa'dira, ez da, len edo gero, ango olast mendiperen batean leitzen ta ondatzen ez den ontzirik; eta ontzia leitu ta ondatu ezkeru, ondatu galduak dira ontziko mariñelak eta beste guziak.

Aldi orietan ez ezik, aizerik ez dabilen aldian ontzi-lema galtzen den aldian, ontzi gañeko zurak aizeak autsi ta eramaten dituen aldian; daramaten yan edana aitzen den aldian, ta era bereko beste aldi zenbaitez, arkitzen dira ontziko gaxoak eriotz izugaria'ren atzapa' gogoretan; ta bazter guzietara begiak giratuagatik, ura ta ura ta zerua baizik ekusten ez dutela, ta, zerutik ezpa'da, laguntzik uste ez dutela.

Idoreko bea'itsu gaxoentzat, ekusi du-

gun bezain laguntzale ona da S. Frantzisko Xabier. Ta itsasokoentzat ez da bat ere laburagoa. Bada bera ere itsasoz anitz aldi txar ekusia da, ta zeruko santu guziak, berak len izandu zituzten neketan ekusten dituztenei, artara ezkerro, laguntzen die gogo osoz ta guztiz ederki. Ta emen bizi zenetik, eta itsasoz bera zebilen alditik, oitua dago S. Frantzisko Xabier milagrozkoko bere lan au itsastar bearitsuen alde egitera. Adi zazu, ezperen.

Arkitzen zen bein S. Frantzisko Xabier, Txina aldera ziyoan ontzi gizonen betean. Urgañean ta urez ingurutua ibiliagatik ontzia, ura da ontzikoak itsasorakoan lenenik bilatzen dutena, ta kontuzena ontzian gordetzen duten gauza; zeren gazia den ta edateko ezona itsasura; ta itsaso bazterera bage aitzen bada ontzian daramaten ur geza, egariz iltzen dira ontziz dabilzanak. Galerak eta gabañak eta txalupak eta itxasontzi txikiak ba-dabilzke arauen batetik bestera, itsasoan aizerik ez ibiliagatik; baña

itsas-egoz ta mastoyalez, txoria egoz bezala, dabiltzan ontzi andiak ez.

Andietatik zen, ta *Santa Cruz* zeritzan bat, aldi onetan S. Frantzisko Xabier'ek eta arekin zebiltzan itsastarak zeramatan ontzia. Itsas erdian aritu zuten ontzi aukalma andiak edo aizerik bageko egunak eta egunak; eta anitz ur ontziko pipa guzietan sartu ba'zuten ere, geyago ziran ontziko egañdunak, eta egunean bakoitzak guti edaten zuela ere, aitu zen guzia. Al zuten guzian iraundu zuten ontziko gaxoak beren egañiarekin. Baña gañetik agitz eretzen zituen eguzkiak, eta bañendik beren egañiak; eta milagroez ezpa'zen, ezin irauten zutela ekusi zutenean, guziak elkartuta, yoan ziran S. Frantzisko Xabier'gana, ta inguratu, ta erdi nega'rezko itzekin asi ziran esaten: «Aita santua, ura, ura; aita santua, egañiz itotzen gara; ura, ura».

Ekusten zuena ekusi, ta au aditu orduko; «ez, nere semeak, ez», — esaten die Santuak — «ez du naiko Yangoikoak ur

edangari bagez emen zuek ilak ekustea. Eskatu bakoitzak, egiñaz damuturik, bere bekatu guzien barkantza, ta goazen, Yesus'en Ama arteko arturik, uriki daki-gula berari eskatzera. Belaunikatzen da besteekin Santua, ta esaten du Loreto'ko letania. Guziekin au esan, ta gelditzen da bera Yangoiko berari otoitz egiten. Baña agitz laburra izandu zen egin zion otoitza; zeren egañdun gaxoak bazter guzietatik ots egiten zioten; «ura laster, Aita Santua, ura, ura».

Oyuka zeudenez urikaldurik, yaiki zen, bere otoitza utzita, S. Frantzisko Xabier; ta guzien erditik ots egiten dio ontzi berean ta besteñ artean arkitzen zen S. Toma'ren legeko gizon bati, ta esaten dio; «ekazkitzue zuk eta zure legeko emen arkitzen zarazten guziok ontziko ur ontzi ta pipa guziak». Ustuak zeuden guziak, eta laster aski atera zituzten ontzi gañera, ta «ona, Aita» — esan zioten — «ur ontzi guziak» — «Bete zatzue, bada» — esan zien S. Frantzis-

ko Xabier'ek — «itsas ur gaziz guziak».

Asi ziran bereala mairu legeko guziak ontzi bazteretik ura igan, ta ur gaziz pipak betetzen. An arkitzen ziranetatik batek edo bestek bere egariarekin artu zuen aoran zer bait ur; baña uraren gaztasunak miia ére, ta ura botata, gelditu ziran artu zuteiako damuarekin tuka ta listuka. Alik lasterena bete zituzten mairu beltzak pipa ta ontzi guziak. Eta, «oía, Aita» — esan zioten — «zuk esan bezala, ur gaziz beteak ontzi guziak».

S. Frantzisko Xabier'ek au aditu orduko, goratu zituen Yangoikoagana biotza ta begiak; eta otoitz labur bat egin, ta bere eskuz besoa luzatu, ta ur ontzi gañean egin zuen gurutze luze zabal bat; eta mairu berei ta ontziko beste guziei esan zien; «oía nai adiña ur geza on; edan, bada, ta on dagizuela». Batak eta besteak asi ziran edaten, lenbizian beren belduñarekin, ta asi ta ura estarira orduko, Yangoikoak daki zer pozarekin, ta

nai adiña edan ondoan, Aita santuari eskerak eman, ta esan zuten guziak beren bizian edan etzutela ur ura bezain otz arin merik eta bañen ohea egin zienik.

S. Frantzisko Xabier'en milagro au ekusita, aritu bezala ziran ur artatik edan zuten mairu anitz; eta berak eskatuta, milagrozko ur berarekin bataitu zituen Santuak, eta gelditu ziran fededun egiñak, eta animaz agitz zuri ederak. Beren poz onekin arkitzen ziranean, etoñi zen aitzina yoateko bear zuten aizea; ta bear bezala mastoyalak zabaldu, ta eraman zuten nai zuten toki ta erira beren ontzia. Ara ziranean, naizutena bidean edan, ta gelditu zen ura eraman zuten itxeetara; ta itxeetako eri ur ura edan zutenak gelditu ziran osasundun sendatuak. Eta ora, itsasoko milagro bati zeraizkola, zenbat milagro itsaso berean ta idorean San Frantzisko Xabier'ek aldi onetan egiñak.

Era berekoak eta ordutik ordura egiñak bezala izaten ziran S. Frantzisko

Xabier'en itsasoko ta idoreko milagroak. Idorekoak utzi ta agertu nai dizkitzut itsasoko beste zar bi ta aurtengo bat.

Itsas bazterean zebilen batez, ekusi zituen S. Frantzisko Xabier'ek arantzatik arai bage zetozen arantzale zenbait. Eta urikaldurik, bedeikatu ziezten, eskuz gurutze bat eginda, uretik zekazten sare utsak; eta geroztik etzuten arantzaleak sareen botaldirik egin, arai aldi andirik egiten etzutela. Era berean, ta bidenabar bezala, egiten zituen S. Frantzisko Xabier'ek anitz beste milagro.

Astizago bezala egiña da, ta ez bakarra, orain zuk adituko dezuna.

Bere Aita S. Ignazio'k Erómatik gartzigatuta, egiteko batez itzuli zen S. Frantzisko Xabier Yapon'go eréinu Bungo'tik Indi aldera; ta sartu zen Txintxeo'ra zetořen Duarte de Gama'ren ontzi batean. Aize ta eguraldi onarekin atera zen Bungo'tik ontzia: baña bidean izandu zituen eguraldi ta aize agitz gaiztoak. Agitz eta agitz aseřetu zen bein aizea, ta aizeare-



kin batean itsaso guzia. Itsas olastak eta aize aseřetuaren boladak, ego andiak emen luma bezala, zerabilten itsasoan gain bera ta batetik bestera Duarte'ren ontzia. Ontzi maisu ta mariñel guziak egiten zuten, ontzia zutik eta ur gañean idukitzeko al zutena. Baña orien al indařak baño agitz andiangoak ziran aize bortitzarenak eta onek asaldatuak zera-biltzan itxasoarenak. Ezpa'litu bezala, ziran ontziak zituen sokak, anastak eta mastoyalak. Urez erdi betea ta geyena ur berean ondatua zebilen ontzi guzia. Baña urezko olast mendi batek azpian artu, ta ontzi guzia ondatzera zetorren aldian, esan zuen S. Frantzisko Xabier'ek; «nere animak maite zaituen Yesus, gure onerako gurutzean egin zizkitzuten bost zulo izugařiakgatik, lagun zakizkit aldi onetan». Eta ark au esate berean, uratu ta yoan zen ontzi bazteretara olast mendia, ta ordu berean zuzendu zen ontzia, ta igan zen ur gañera.

Ontziari loturik, eta urean, zebilen

amasei gizonekin ontziko txalupa. Ontziko nagusiaren iloba zen amaseyetatik bat. Soka batez lotu oi da, urean dabilen aldian edozein ontzi txalupa. Baña eku-sirik aldi artako itsasoaren asealdia, lotu zioten beste bigarena; ta alere, aizeak eta urak eta ontziak bi sokak autsi, ta gelditu zen ontzitik uruti txalupa, ta ba-zebilen batetik bestera, itsas bagak eta olastak nai bezala. Laster gorde zen ontziko guzien begitik, eta ondatu zelako agitz naigabetua zebilen ontzi nagusia; ta aren gisan arkitzen ziran ontziko beste guziak.

Era onetan oriek S. Frantzisko Xabier'ek ekusita, «ez da zer kezkatu, gizonak» — esaten die guziei —. «Txalupa ez da galdu, ez eta galduko ere; etoriko da; ta etoriko txalupan diran gizon guziekin ta gure ontziko nagusiaren ilobarekin.» Ametsa zela uste zuten aditzen zutena, ta «gnola dabilke» — zioten — «mastoyalekin ta aize onarekin ontzi au adiña, ta au baño ere geyago, non arki-

tzen den ez dakigun, itxas zapirik ez dakañen ta laur arāun baizik ez dituen txalupa? Ekusi artean, beintzat, nik au ez det siñistuko» — zion batek; eta au bera zioten beste guziak. Au guzia adi-tzen zuen Santuak; eta bere itza sendo-rtzen zuela, «bai gizonak» — esaten die beriz — «bai, etoriko da batela batelko gizon guziekin; ta etoriko da, ekusiko dezuten bezala, datozen irur egunen buruan».

Santuak esan zuen egunen buruan, ontziko gabian arkitzen zen ontzi-mutil bat; eta ontzian alakorik uste etzutenean asi zen oyuka: «milagro, milagro: ara non datoñen gure batela». Eta ala zen; ta ontziko guziak alde artara begiak giratu ta ekusi zuten an zetoñela, ta, bala bat ba'liz bezala, itsas bagak edo olas-tak uratuz, ontziratzen zala txalupa. Ontzitik soka eman, ta txalupa lotu, ta ontzira igan ziranean, galdetu zien zein izandu zen txaluparen gobernari; ta beatz eriz berezten zutela, «oña» — erantzun

zuten — «Aita santu au»; (Au zen bazter guzietan ematen zioten izena.) «Oneskuz gurutz egin, ta uratzen zituen itsas olastak, eta geldirazten zuen zetoñen aizea» —. «Ez, gurekin emen egondu da beti Aita santua» — zioten ontzikoak — «Baita gurekin ere txalupan» — erantzuten zuten txalupakoak. Eta guziak azkenean ezagutu zuten denbor batean txalupan ta ontzian ibili zela guziei laguntzen Santua, ta au zela Yangoikoaren aldi artako irugañen milagroa.

III Españiko eregeren manuz, Erroma'ko Aita Santuaren erietara ziyoazen aurten, 1769 gañen urtean Yesus'en Konpañiko berogei ta amar bezala. Sartu ziran Genova'n, prestaturik arkitu zuten ontzi batean. Bidean artu zituen itsas element arigariak; eta bidetik atera, ta irur egunez erabili zituen batetik bestera, ezin gaizkiago; ta azkenean gelditu zen ontzia, Duarte'ren ontzi S. Frantzisko Xabier'ek milagro zuzendua bezain era gaiztoan; ta biziaz etsiak bezala arkitzen

ziran ontziko guziak. Duarte'ren ontziko bere lagunak bezala, milagrozo atera zitzan, egin zioten boto S. Frantzisko Xabier'i eta tiratu zuten itsas aseřetura Santu beraren estampa. Estanpak ura ukitu orduko, palakatu zen itsasoa, zuzendu ta arindu zen ontzia, ondu zen aizea, ta ez-bai-da batean bezala, eramantituen beren ontziarekin bilatzen zuten kaira edo portura, guziak ariturik gelditzen zirala. Ta ontziko nagusiak, eskerdun onak bezala, aritu zuen bertan San Frantzisko Xabier bere ontziaren betiko Patroitzat. Ora zer den itsastaren-tzat ere S. Frantzisko Xabier. Balia dakiela, beraz, baliatzen diranei. Bai ařen, bai.

---

## IRUGARĒNEN EGUNEKO IRAKUĀLDIA

**Gaya. Bizi zenean, besteren eskuz ta  
urutitik ere egiten zituen**

**S. Frantzisko Xabier'ek milagro andiak**

*Tolle baculum meum in manu  
tua, et vade, 4 Reg. 4, 29*

Ongile, anitz aldetara ongi egiten duena, da beartsu gaxoak geyenik bilatzen dutena; ta S. Frantzisko Xabier da bea'alditan itsastar ta idorekoak bila dezakeena; bada da ongile anitz aldetara ongi andiak eta milagro txarmagariak egiten dakiena, ta bizi zenean, besteren eskuz ta urutitik ere egiten zituena, aldi onetan guk ekusiko dugun bezala.

Egun batez arkitzen zen S. Frantzisko Xabier egitekoz agitz betea. Konfesatze-

ko zeuden anitzek elizan ingurutua zedukaten Santua. Bataitu bear zuten beste anitz beraren begira zeuden eliz atarian; ta beste anitz an bertan arkitzen ziran, kristau dotriña ikastera urutitik edo itxetik etorriak. Aldi berean jentil zaldun baten mandatariak esaten dio: «Aita santua, agitz gaizki arkitzen da nere nagusia, ta arkitzen da zu ekusi nai andiarekin; zoazkio, aŕen, sendatzera.»

«Aldi onetan ez, ezin noake»—erantzuten dio Santuak—«Ekusten dezudan zeregiña, ta zeregin ezin utz dezakedana. Alere egiñen dut zerbait zure nagusi eriaren onerako.»

Argandik baztertu, ta bilatzen du San Frantzisko'k bere laguna, ta esaten dio; «orain etori da eri baten mandataria nere eske; baña, ekusten dezun bezala, ni ezin noake. Zoaz zu nere ordeztan mandatari berarekin; ta eria ekusten dezu-nean, galdetuko diozu bein, beriz ta irur alditaraño nai duen artu batai san-

tua; ta bayetz beti erantzuten ba'dizu, egiozu eskuz gurutze bat, eta bertan sendaturik geldituko da. Erakutsiko diozu gero batayorako yakin bear duena, ta bataituko dezu.»

Ara zen S. Frantzisko Xabier'en laguna, ta egin zuen eriarekin Santuak esan ziona. Jentil zaldunak nai zuen osasuna, baita batayoa ere. Santuaren izeneko bedeikantzarekin aritu zuen osasuna, ta dotriña ikasi-ta batayoa; ta gelditu zen S. Frantzisko Xabier'ek bere lagunaren eskuz eman zion osasunarekin, ta fededun egiña.

Bera berez, edo bere lagunez, ezin yoan zenean, igortzen zuen S. Frantzisko Xabier'ek edozein aur' edo mutil baitaitu; ta igortzen zituen auren eskuz egiten zituen, egitekoz beterik ez egotera, berak yoanda egiñen zituen milagro andiak. Eta milagroak ziran, Santuak aurari bere erosarioa eman, ta Santuaren erosarioarekin aurak, oñazez leitzen zen eria ukitu, ta oñazerik bage uztea,



sukañez ere ta urtuka bere egunak bukatzzen ari zenari sukar ta kalentura guzia kentzea; ta len zuena bezain osasun ona ematea, ta era bereko beste eriak bat batean ta luzatu bage sendaturik uztea.

Jentilen artean ematen ditu deabruak anitz tunda galgar; ta askotan jentil beren gorputzetan sartu, ta noizbait uzten ditu su gar egiñak bezala; ta suduretatik eta aotik kea dariela; besteetan otzez ta ikaraz galduak; besteetan miñez ta oñazez beteak; besteetan odeyetaño igaten diran oyuak eta karaisi garatzak eragiten dieztela; eta besteetan era bereko edo beste neke izugariaoren batean sartuak. Era onetako beren nekeetatik atera nabez, bilatzen zuten anitzek S. Frantzisko Xabier. Eta beren oñez argana ezin yoan ziranak igortzen zuten mandataria, Santuaren eske. Ta Santuak, ezin yoan ziteken aldian, egiten zuena zen, aur bati bere eskuko kanabera eman, ta esatea; «zoaz urliagana; ta aren baitan arkitzen den deabruari

burutik bera eman bear ba'zenio bezala, au goititu ta neatxuz esayozu; *deabru txara, Yesus'en izenean oa ortik ere sulezera;*» ta aurak au egin orduko, zedukan gorputza utzi, ta yoaten zen deabrua bere infernura, Santuak berez bota ba'lu baño naigabe ta amurantz agitz andiangoarekin, ta aur' baten eskuz San Frantzisko Xabier'ek garaitu zuelako lots alkearekin.

Zenbait aldiz, urutitik eta besterik bere ordezt bidaldu ere bage, egiten zituen San Frantzisko Xabier'ek era bereko gauz andi ta milagro ederak. Orietatik eta ekustekoa da orain adituko dezuna.

Ba-da Indian Malaka deritzan eri eder bat. Portugesena zan eri au, S. Frantzisko Xabier' Indietan zebilen denboran. Soldadu guti zituen S. Frantzisko Xabier' an arkitzen zan aldi batean. Izanduzuten soldadu gabentz onen beria alde artako mairuak edo mairu legekoak; eta begi onez ezin ekusiz portugesen eskutan beren bastereko eri au, bildu zituz-

ten ge'ako irurogei ontzi, ta bear' zituzten gauzetarako beste zenbait; eta gauaz, e'ikorik oartu bage, e'ri aldera ziran guziak. Atera zituzten ido'era ge'ako bost mil gizon ta geyago; ta goizeko ordu bietan artako ziran eskal luzeak eramane, ta asi ziran anitz aldetik e'ira igaten. Ba'na zertara ziyoazen norbaitek ekusi, ta ezkil to'reetako so'nuarekin e'riko guziak iratza'ita, zituzten armak artu, mural ga'nera igane, ta ara ziran mairuak bota, ta bazter ayetatik ayenatu, ta uratu zituzten mairuen neu'riak, eta gelditu ziran e'ita'ak beren e'iarekin.

Mairu geyenak beren lan onetan zebiltzan denboran, ontzietan gelditu ziran zenbaitek, kayan arkitzen ziran e'riko ontziei sua eman ta e're zituzten andien ta onenetatik zortzi. Ta lan gaizto au egin ondoan, e'ri aldetik zetozen soldaduak artu, ta atera ziran itsasora; ta eguna argitu zenean, ya'ri ziran e'iarene aurkezkan, pelean sa'itzeko eran, edo ontzi guziak beren bander zabalduekin,

piñano ta tanbor soñuekin, ta geñako beste señaie guziak zituztela.

Orduko eñira zetozen zenbait añantzale, mairuak itsas baztañean añapatu zituzten, ta sudur beañiak kendu, ta karta batekin igorñ eñiko gobernariagana, ta beste guzietara. Eñitañak urñkariz añitu ziran, beren añantzale gaxoak gis artan ekusita; ta agitz añituagoak gelditu ziran, aditu zutenean zekañten kartak zionañ. Bada kartak zion ezer ez bat bezala zela gure Mesias Yangoiko gizona mairuen Mahomaren aldean; ta besterik esaten zuten eñitañak, gizon ba'ziran, atera zitezela itsasora, ta ekusiko zutela.

Mairuen karta blasfemari au eskuan zuela añkitzen zen eñiko gobernaria. Jesus'en Amaren eliz batetik zetoñela, San Frantzisko Xabieñ aren aldera zenean, au ark ekusi orduko; «oñañ»—esaten dio—«oñañ, Aita Santua, oñañ orñ añkitzen diran bartko mairuak gastigatzen dutena.» Añtzen du S. Frantzisko Xabieñ'ek gobernariaren eskuko karta; ta mairuen

ango ausardi blasfemia ekusita, yáitzen da su egiña, goititzen ditu zerura bere bi begiak, eta ongi ater-ustez ta esperantzez betea, giratzen da gobernari beragana, ta esaten dio: «governari yauna, agerian dago egin bea' dena, ta lenbait len egin bea' da. Mairu oriek beren kartan blasfemiz bete dute Yangoikoa.» Ta Yangoikoak bortizki lagunduko die beraren onraren alde pelean aritzen diranei. Gelditu diran ontzi piskak ar' tu ta erit'ik atera ditezken soldadu guziak atera ditezela, mairuekin Yangoikoaren onraren alde pelean aritzera.»

—¿Mairuekin pelean aritzera, Aita Santua?»—esaten dio gobernariak—»  
Ontzi er'ee'kin, edo nola?

—«Itsas bazter'ean dauden ontzi za'rak prestatuta» — erantzuten dio S. Franzisko Xabie'ek.

—Aita, galdutza' utziak daude or' ontzi oriek; eta pelearako ez ezik, ez daude ur gañean ibiltzeko ere». Ta «atoz ekustera» esan, ta ba-diyoa gobernaria

San Frantzisko Xabier'ekin ara. Arkitu zituzten zazpi txar, deus gutitako ziranak. Eta alere, «aski dira etsayaren irurogei sendoak garaitzeko», gobernariari esan, ta eskatu zion Santuak an arkitzen zen probedoreari, presta zitzala ziranak, eta alik lasterena.

«Aita, zertako?» — erantzun zion probedoreak Santuari — «Oriek prestatuta ere, larogei ta amar urteko agure edo gizon zañak armak arñu ta geñarako bezala, izanen dira itsas pelearako. Bestelere, arien kalafaterako ta beste lanetarako ez da emen, ez eta zerekin erosi ere; ta lastima litzake lan oñetan ardi bat ere gastatzea.»

—«¡Yesus! bada; ta «ez ote da bideren bat gauzak zuzentzeko?» — esaten dio Santuak.

—«Bat ere ez, Aita» — erantzuten dio kargu ura zuenak.

Giratzen da Santua an arkitzen ziran portugese-tara, ta esaten dio besarkatuta batari; «Yangoikoaren izenean ta beraren

onragatik, ontzi bat prestatzea zure kontura», ta beste zazpiti beste anbeste. Aditzen dute guziak Santuaren itza; bilatzen dituzte artarako ziran bosteun gizon ta geyago; ta bost egunen buruko presaturik arkitzen ziran zortzi gerako ontzi. Eriko gobernariak eman zituen eun ta larogei soldadu, ta orien zortzi buru, ta zegozten yan edangayak, armak, satunbak, balak eta polbora artuta, yoan ziran beren ontzietara. Ta itsas bazterean San Frantzisko Xabier'ek Santo Kristo bat agertuta, esaten ziela «ora, Yaun au gerako general; Onen onra da ger one-tan bilatzen dezutena; zoazte, garaitu dezutelako uste osoan, ta beldurik bage», ta Santo Kristo berarekin Santuak be-deikatzen zituela, sartu ziran gizonak beren ontzietan, ta atera ziran itsasora. Baña agitz nagiro, ta zarak bezala, ta zortzietatik andiena Yangoikoak daki nola. Ta au itsasora orduko, uratu ta urez bete ta ondatu zen, eriko guziak begira zeudela.

«¡Ay, au erakeria!» — asi ziran esaten guziak, au ekusita — «Onda ez ditezen, datozela beste ontziak itxera edo kaira. ¿Zer egiñ bear' dute zazpi ontzik, eta oriek ere zarak, irurogei berirekin? Ta ¿zer bereun soldaduk bost milarekin? Baldin ba'diyoaz, galduko ditugu, ditugun ontzi txarak, ditugun gizonak, oraindañokoan irabazi dugun onra; ta azkenean galduko dugu geren eria, erian duguna ta bizitza.» — Au bera zioten gobernariak eta konsejuko beste guziak ere. Baña ez S. Frantzisko Xabier'ek; ez eta ontzietako soldaduak ere. Bada soldaduak zioten Santuak ziona egin nai zutela, ta Santuak zion bezain ongi peleafik atera uste zutela.

Alere esan zion gobernariak ontzien kargua zeramanari etzedila eritik agitz urundu, ta urbiltzen ezpa'ziran etsayak, itzuli zedila bere ontziekin kaira edo portura. Baña bere girak egin ta itzuli nai zuenean, lu' aize batek eraman zuen ontzi guziekin itsasoak ba'ena; ta itsas



bazter batean aingurak botata, egondu ziran ogei ta irur egunez itxerako aizearen begira. Bitarte ontan gobernaria ta eriko guziak itsasoan edo pelean galdu ziralako beldur andi batekin arkitzen ziran. Ta S. Frantzisko Xabier'ek ezetz esanagatik, etzuten eritarak au siñisten.

Predikatzen ari zen igande batez, isildu zen piskapuri bat S. Frantzisko Xabier'; eta gero aldean zuen Santo Kristo' gana giratu, ta asi zen esaten, «¡Ah Yesus! Orain da aldia... yañai, yañai. Yauna, zure izenean ta zure onragatik ari dira pelean... orain, orain igesi doaz.» Gero bi ukalondoak pulpituaren ertzean ezañi, ta eskuak gurutzatu, ta burua gainean ezañi, ta egondu zen isilik iru *credo* bezala; ta gero yaiki ta esan zien elizan arkitzen ziranei: «Yangoikoari eskerak, gure ontzietakoak garaitu dituzte beren etsayak. Emendik eun ta ogei ta amairu legoa arkitzen dira, ta datoñen ostiralean etoriko da guziaren beria.» Eta etoñi ere zen, ark esan bezala.

Zeramatena aitu, ta atera ziran zeuden tokitik portugesen ontziak, yateko bila. Ta nola etzekitela, urbildu ziran Pedir deritzan ibai andi batera. An arkitzen ziran etsayen ontziak. Eta portugaltarak ekusi orduko, atera ziran peleara. Portugesen lenbiziko tiroekin azpitik zulatu-ta, asi zen ondatzen eregeren ontzia. Ori laguntzera yoan ziranak trabatu ziran onekin, ta artu zuten ibai guzia; ta orien, ta batak besteen kontra, golpatu ta nastu ziran beste guziak. Eta bitartean portugesak beren sutunbekin egiten zuten nai zuten kaltea. Etsayen irurogei ontzietatik, irur baizik etzuten iges egin. Portugesen tiroak ondatu zituzten gañerakoetatik, berogei ez, beste guziak; artu zituzten berogeyak, eta oriekin ta orietan arkitu zituzten irureun sutunba edo pieza andiekin ta beste ondasun guziekin sartu ziran Malaka'n, andik atera ziran zazpiak, baita, laur ez, beste beren gizon guziak ere.

Ora nolakoa urutitik S. Frantzisko

Xabier'ek egiñikako milagroa. Ekusten dezu, au emen egiten zuenak, zerutik dagikena. Balia dakigula, bada, bea' dugun guzian, ta zerua irabazten. Bai a'ren, bai.

---

## LAUGAREN EGUNEKO IRAKURALDIA

### **Gaya. Andia da gaiztoak eskuratzeko San Frantzisko Xabier'ek duen eskua.**

*Fecit potentiam in brachio suo. Luc. 1, 51*

Sulezekoak ez dira emen bizi garanok ditugun etsai guziak. Emen bertan ere izaten dira gizon etsayak, baita Yangoi-koari bere animak kentzen dabitzan gizonak ere. Ta andia da era bateko ta besteko etsayak eskuratzeko, ta eritasun gaiztoak galerazteko, S. Frantzisko Xabier'ek izandu zuen ta duen eskua.

Inditan gaxoei al zuen on guzia egitera yoanik, ibilizen an S. Frantzisko

Xabier azkeneko bere amar urteetan; ta egin ere zien ezin esan ala; ta egin zien, animako gauzetan ez ezik, emen bertakoetan ere. Bada ematen zien anitz eta anitz eriri osasuna, zenbait ili bizitza, ta bizi zenbaiti bestela galdu bear zuten ondasuna, orain zuk ekusiko dezun bezala.

Indietan Yangoikoaren legera San Frantzisko Xabier'ek ekañ zituen ereinuetatik izandu zen Trabankor deritzan andi bat. Sulezeko deabru gaiztoaren atzaparetan arkitu zuen San Frantzisko Xabier'ek ereinu au. Bada etzuen an arkitu fededun bat ere; guziak arkitu zituen gentilen itsumenez ta erakeriz be-teak. Alere, egiten zituen milagro andiekin ta zeruko erakuste argitu ederekin, ilbete zenbaiten buruan bataitu ta fededun egiñak zeduzkan erege bera ta ereinutar geyenak; eta bazter batean ta besteetan egiñak arkitzen ziran Yangoikoaren berogei ta bost eliz; ta denbor berean uratu ta auts egiñak, an bertan

orduraño sulezeko deabruak eta deabruaren idolo txararak izandu zituzten pagode ta eliz guziak.

San Frantzisko Xabier'en lan andi au eragozteko, idolo beren apaizen eskuz ta beste anitz aldetara egin zuen deabru gaiztoak bere al egiña. Baña us eta us-tel atera zen aren al guzia. Ta an bertakoen eskuz egin etzuen, bestetakoen eskuz egin naye, asaldatu zituen Trabankor'ko erinuaren inguruan bizi ziranak. Trabankordarak baño agitz geyago ziran oriek, ta ziran gizon ge'arako egiñak. Eta deabru gaiztoak eman zien suarekin, ta Trabankortar fededunei zuten guzia kendu naye, armak artu ta ejertzitu izugarri bat egin, ta artu zuten fededun gaxoetarako bidea.

Trabankor'tar gaxoak etzuten alakorik uste, ta prestaturik arkitzen etziran ge'arako. Ta beren inguruko badagak (au zen Trabankor'taren ingurukoen izeno) armak arturik bertan zirala aditu zutenean, arituen gisan gelditu ziran, zer

egin etzekitela. Alderena zutenak bilatzen dute S. Frantzisko Xabier, ta negarez beteak esaten diote agitzen dena, ta eskatzen diote bereetatik bat. «Bada eregek bere ereinuko guziak bildu ta ejertzitu bat egin nayagatik, izanen ez dira», — esaten diote — «badagen laurdenak ere; ta dagiela eregek nai duena, edo dagola geldirik, galduak gara erege bera ta ereinutar guziak, zuk gu peril onetatik milagroez ez ateratzera».

Itz egiten zioten Trabankor'tarak bezain ongi ekusten zuen S. Frantzisko Xabier'ek au guzia, baita geyago ta geyago ere. Bada ekusten zuen ereinuko lenbiziko eriak, ara ezkerro, ereko zituztela gerari badagak; artuko zutela an bertan ta beste erietan arkitzen zutena; ereko edo uratuko zituztela Jaungoikoaren an bertako eleiz guziak; eta azkenean, badagak andik aterata, bizirik gelditzen ziranak geldituko zirala ondasunik, yatekorik, itxerik eta elizik bage. Ta erege gerako zenbait biltzen asi ze-

nean, belaunikatu, ta otoitz egin, ta Santo Kristo bat aritu, ta atera zen bakañ bakañik etsayen bidera.

¿Zertara uste dezu? Badaga beren ta Trabankor'tařen arteko izatera, ta bada-gentzat zenbait diru ta ondasun Trabankor'taerei aterako ziela badagei esatera? edo badaga berei Yangoikoaren elizik etzezatela uki eskatzera? Ez bada. ¿Zertara, bada? Berak bakañik, zefozen badaga guziak garaitu ta beren itxeetara iges bidaltzera. Ta egin ere zuen. Ta nola usate dezu? Adi zazu.

Bere boneta buruan, Santo Kristo bat esku goi goitituan duela, ta lei gogor peleara diyoan baten gisan, anitz mil badaga armatuei ateratzen zaye bidera; ta ateratzen, azpirako dituela dakienaren oin ariñarekin. Ta agur bat ere egin bage, ta gaizki dabiltzan mutilei nagusiak bezala begi zorotzez begiratzen diela, ta agitz gogoriki mintzatzen zayela, esaten die: «Begira; oin bat ere antziñat igitzen ba'dezue, ezpa'dezue nai



Jaun onek dagien or bertan zuek ilak uztea, edo beste gauz zentzagariren bat; (egin dezutenagatik ere irabazi dezute onelako zer bait) ta au zuek zeren buruan ekusi nai ezpa'dezue, ots, fite ta ber be-reala artu zeren itxeetarako bidea.» Au ta era bereko gauzak esaten zieztela, ba-zebilen biziro Santua, ta ba-ziyoan beti soldadu beretara. Ta ura ala ikusita, soldadu badagak an ziran ura au'rer-ai-tziñat adiña, gibelat igeska; ta gis artan ibili ziran Trabankor'koa utzita, beren ereinuraño. Ora zer eskua, Trabankor'ko bere elizak, bere fededunak eta fededunen itxeak eta ondasunak gordezeko S. Frantzisko Xabier'ek aldi onetan agertu zuena.

Bizi-zenean ez ezik, il ta ere San Frantzisko Xabier'en gorputzak izutzen ditu eritasunak eta gizon gaiztoak; eta ateratzen ditu erioaren eta gaiztoen atzaparetatik beraz baliatzen diran fededunak eta besteak, orain zuk ekusiko dezun bezela.

Indietako bazterak, Japon'go ereinuak eta itsasoko islak fededunez bete, ta miletan mil ta gañez beste bereun mil andi ta txiki bere eskuz bataitu, ta Txina'ko imperi andia ere Jaingoikoarentzat irabazi ta fededun egiña utzi nayez, artu zuen San Frantzisko Xabier'ek arako bidea. Txina'n sartzeko neurriak artu artean, gelditu zen Santxon deritzan, aren aldeko isla batean. Baña ark uste etzituenak ziran Jangoikoaren berarekiko neurriak, eta Txina'ko nekeetan sartzen utzi bage, eraman zuen Santxon'dik zerura. An, ontzitik aterata, egin zioten etxo! txar bat, ta an egondu zen zenbait egunez eri Santua; ta egon zen medikurik, barberik eta sendagairik bage; ta azkenean il zen, elizakorik ere nork eman etzuela. Ta alere il zen, bizitu zen gisan, ta agitz santuki; ta il zen, beraren ontziko mariñelak nork daki zenbat negar egiten zutela.

Zituzten egitekoak an egin, ta itxerakoan Santuaren ezurak berekin eraman

nayez, eliz soñekoak gañean eman, ta ortzi zuten kaja batean, zen guzia kare biziz betetzen zutela. Bi il ta erdiren buruan abian arkitzen zen Indietarako San Frantzisko Xabier'en ontzia; ta yoan ziran, beren ustez, Santuaren ezur utsen eske. Baña, gañeko karea kenduta, arkitu zuten gorputza, il zen ordu berean bezain osoa ta biguña, ta zeruko usai agitz eder bat zeriola. Ta zegon bezala, bere kajan artu ta eraman zuten ontzira, ta ontzian Malaka'ko erira.

Malaka'ko andi ta txiki guziak ikasi zutenean an zetoñela S. Frantzisko Xabier'en gorputza, prozesio bat egin, ta yoan ziran aren eske; ta eraman zuten Santu berak eragin zuen Jesus'en Konpañiko elizara; ta beren maisu ta apostol ta Santu andiari bezala, zegozkan onrak egin, ta eri bati an eman zion milagrozkos osasuna ekusi, ta zekaren kajatik atera, ta lurtatu zuten eliz berean, oaburuko bat azpian ta oyal txuri bat aurpegian ezartzen ziotela.

51 Andik bost ilbetera ara zen Yesus'en Konpañiko aita bat; eta yakin nayez zer gisan arkitzen zen Santuaren gorputza, isilik elizan sartu, ta idiki zuen aren obia, ta arkitu zuen gorputza, len bezain biguñā, ta il zen orduan bezala; ta arkitu zituen beraren eliz soñekoak, egin ziranean bezain beriak, eta gañeko oyal zuria ta azpiko burukoa odol beriz beteak. Eta odola zen, gañeko kargak Santuaren buruari boterazi ziona.

Izandu zuten eritañak milagra onen beria, ta kaja eder bat egin, ta damaskoz estali, ta ezañi zuten an Santuaren gorputza. Ta zeren arkitzen ziran pozoi izurizko eritasunez beteak, edo peste deitzen zayon gaitzez galduak, eskatu zioten Santuari, beraren gorputz an zutenaren onñan, atera zitzala beren gaitz andiaren atzapañ gogoñetik. Eta puntu beretik Yangoikoak, Santuak eskatuta, atera ere zituen. Oñā il zenetik, eritasunik gaiztoenak ere eskuratzeko, S. Franzisko Xabieñ'ek duen eskua.

S. Frantzisko Xabier'en gorputz guzia dutenen alde ez ezik, gorputz beraren zerbait zati dutenen alde ere, askotan agertu du Santuak bere esku andi au. Adi zazu beraren beso bat andik zekar-tenen alde bein, ta beso bera ekustera urbildu zen ereje batekin beste batez Santu berak egiña.

Ekusi ditugun Malaka'ko milagroak egin, ta laster eraman zuten S. Frantzisko Xabier'en gorputza Goa'ra; ta an arkitzen da geroztik onara. Yangoikoak daki zenbat diran ara ordutik Goa'ko eri berean ta ango beste bazter guzietan Santuak egin dituen milagro andiak. Eta emengo gure bazteretan len egiten zituenak baño geyago Santu berari eragin nabez, eskatu zuen Erroma'tik Yesus'en Konpañiko gure Nagusi Generalak Santu beraren beso bat. Eta eskatu ba'zuen ere, Santua il ta anitz urteren buruan, S. Frantzisko Xabier'en gorputza arkitzen zen, il zen egunean bezain osoa.

Beldur andiarekin sartu ziran lan au

egin zutenak, S. Frantzisko Xabier'en gorputz osoari beso au kentzera: ta artara prestatu ziranean, Santuaren kapil guzia ikaratu, ta andik iges yoan ba'ziran ere, beriz ara, ta Yangoikoari otoitz egin, ta Yesus'en Konpañiko Nagusiak eskatzen zuela aren besoa S. Frantzisko Xabier'i esan, ta beraren Aita S. Ignazio'k eskatu ba'lio bezala, egondu zen geldirik S. Frantzisko Xabier'en gorputza; ta ebaki zioten eskoyeko besoa, ta ekañi zuten Erroma'ra.

Denbor artan ba-zerabilzten portugestañak *carabela* izena zuten itsas ontzi txiki zenbait; eta orietatik batean ekañi zuten S. Frantzisko Xabier'en beso au. Bakañik zetoñen ontzi txiki au; ta itsas bazteñak utzi, ta ur anditan sarturik zebilen batez, ekusi zuten ontzi berekoak aldetik zeñaikola mairuen itsas lapuñ ontzi andi, agitz biziño zebilen bat; eta ekusi zuten aren atzapareñetik Santu berak ez ateratzera, galduak izan beañ zutela. Atera zuten, bada, Santu beraren

gorderik zekarten besoa; ta oloitz umil bero bat egin, ta Yesus'en Konpañiko an zetoŕen aita batek ontzi gañera igan, ta bere bi eskuetan goititu zuen, mairuen ontziari begira zegokala, Santuaren beso bera. Ta mastoyal aizez beteekin ta nai bezala ba'zetoŕen ere, Santuaren besoa agertze berean, gelditu zen kate andiz aitz bati lotua zirudiela. Ta zebilēn aizeak erabili zuen, ontziko portugesak nai bezala, beso bera zekaren ontzi txikia. Ora zekartenen alde S. Frantzisko Xabier'ek bere besoz aldi artan egiña.

Len ta gero besteen alde beso beraz ta beste bere erelikiz edo kutsuz S. Frantzisko Xabier'ek egin dituen gauz andiak ezin konta al adiña dira. Adi zazu beso beraz Eróma'n, anitz urte ez dela, ereje gazte batekin egiña. Sorginkeriak zirala uste zuen ereje onek Santuen milagro ta gauz andiak; eta nola egiten ziran ta fededunen beste gauzak ere ekusi nayez, yaitsi zen Nortetik Eróma'ra. S. Frantzisko Xabier'en bederatzurunean ari ziran

aldi artan, Santuaren besoa duen angogure elizan. An zena ta egiten zutena ekus nayez, sartu zen elizan erejea; ta arkitu zuen Santuaren aldarea agitz ederki apaindua, ta Aldarean Santuaren besobera. Ta besoari begira gelditu zeneko, ekusi zuen besoak bere eskuz deitzen ta deitzen ziola beregana. Toki ura utzi ta yoan zen beste aldera. Baña ekusi zuen giratu edo itzuli zela Santuaren besoa, ura yoan zen aldera, ta leneko gisan bere eskuz ots egiten ziola; ta beste edozein tokitara ura yoanagatik, au bera beti egiten zuela. Yoan zen elizatik Santuaren iges; baña bere buruarekin ezin burutuz, itzuli zen beriz ara, ta beriz ere agitu zitzayon len agitua; ta zena ariturik, yoan zen andik, beste gauzarik Eroma'n ekusi bage, bere erira itzultzeko asmoan, ta aritu ere zuen zenbait aldiz arako bidea. Baña S. Frantzisko Xabier'ek bidera atera, ta geldirazi zuen beti; ta azkenean, Santu berak erditsion zeruko argiaz, diran gisan gauzak



ekusi ta ereji gaiztoa utzi, ta egin zen an bertan fededun. Ora norañokoa, nai duten guziei laguntzeko S. Frantzisko Xabier'ek duen eskua. Artu zazu, Trabankor'tarak, Malaka'koak, itsasokoak eta beste onek bezala. Bai arén, bai.

---

## BOSTGAËREN EGUNEKO IRAKURÁLDIA

**Gaya. Anitz eta andiak dira**

**San Frantzisko Xabier'ek**

**bere itzalez egiten dituen milagroak**

*Ut umbra illius adumbraret quemquam illorum, et  
liberarentur ab infirmitatibus suis. Act. 5,15*

Indiko Goa'n gelditu zen S. Frantzisko Xabier'en gorputz osoa. Andik gero eramana zen aren beso bata, ta Eróma'n arkitzen da. Zenbait beste toki ta eritan ba-dira Santu beraren zenbait kutsu ta ereliki. Baña munduko eun eritatik larogei ta amaseyak daude oréla korik bage; ta ez dutenak bea' dute zerbait beste oroigari, S. Frantzisko Xabier bilatu ta milagroaz erdisteko bea' duten au edo

ura; bada bilatzen ta eskatzen ez duen gabeak izan ez oi du nai duena.

San Pedro'k, emen bizi zanean, sendatzen zituen, eguzkiak eragiten zion bere itzalarekin ukitzen zituen eriak. Il ezkerro, geldirik eta gordeak arkitzen dira S. Pedro'ren, S. Frantzisko Xabier'en ta beste Santuen gorputzak; eta gutitan edo bein ere ekusten ez ditu eguzkiak, bizirik zebiltzanean bezala, zerbait itzalketa oriei ark eragiteko; ta beste itzalgiroz egin beariko dute, itzalez zerbait egiteko; ta egiten ere dute; ta San Frantzisko Xabier'ek gutienik ez. Bada egiten ditu, ta anitz, bere dominuz edo medalez, bere estanpez, ta beraren zurezko edo beste gayezko aintzurez. Ta oriek ere Santuen itzalak eta taisuak dira, gorputzari eguzkiak utzerazten dion iluntza gorputz beraren aintzura ta taisua den bezala; ta taisu au baño, taisu ta itzal obeak.

Bere dominuz edo medalez S. Frantzisko Xabier'ek egin dituen milagroen

ar-tean, ekustekoak dira Luzi Vellenzana zeritzan inditar andre zar baten eskuan gelditu zen batez egiñak. Orain zuk adituko dituzunak arkitzen dira S. Frantzisko Xabier aldarera iganerazteko egin ziran prozesu batean. Luzi au zar-tu, ta eun ta ogei urte zituenean ere, beste edozein ogei ta bostetan bezain indartsu ta bizkor arkitzen zen. Gazte zela, erakutsi zion S. Frantzisko Xabier'ek gure Lege santa ta ongi bizitzeko yakin bear den guzia. Ta len ta gero, bere erakusle ta apostol maitagañari bezala, izandu zion ongi nai agitz andia; ta erditsi zuenetik, etzuen utzi aren aintzura ta itzala zuen medala.

Luzia'ren medala onekin S. Frantzisko Xabier'ek egin zituen milagro anitz ekusita, yuramentupean esaten du testigu batek: «Nik nere begiz ekusi ditut, S. Frantzisko Xabier'en medala au ukitu orduko, gaitzik bage ta osasun osoan, oñazez burua erdi bi egiña bezala zedukatenak; esku, beso edo oin ezin galdua-

goekin arkitzen ziranak; gorputz erdi usteldua ta aragi zatiak zeriozkala zedukatenak; eta zañak, lañua ta ezurak baizik etzutenak, eta, zutik zebiltzanean, ilak ziruditenak». Oñ testigu onek yuramentupean esaten duena. Eta gis onetan arkitzen diranak bat batean gelditzea, gorputzak berez ezin dagiken gauza, ta Yangoikoaren milagroa da. Oñ, bada, zenbat milagro, S. Frantzisko Xabier'ek eskatuz ta beraren medal onek ukituz, Yangoikoak egiñak; edo esan oi dan bezala, oñ zenbat milagro S. Frantzisko Xabier'en medal onek egiñak, eta testigu ekusleak bere yuramentuz seguratzten dituenak.

Aditu dituzunak baño andiangoak dira medal beraren bidez S. Frantzisko Xabier'ek egin zituen beste zenbait. Ara nolakoak. Ordua baño len yayoa, edo zazpikia zen Luzi beraren eriko aur bat. Yayo zen aur au biziaren antzik bage, ta obira eramaten diran ilak bezala. Bazekien auraren amak S. Frantzisko Xa-

bie' en medalak egiten zituela gauz txar-  
magariak; eta medalaren yabe Luzia'ri  
deitu ta eskatu zion, biz zezan Santuak  
aren aur' ila, Santu berari otoitz egin, ta  
uki zezala bere medal milagrariarekin  
aur' bera. Egin zuen Luzia'k aur' ilaren  
amak eskatu ziona, ta medalak aur'a  
ukitzean, gelditu zen biztu osasunduna  
aur' orduraño ila, edo ila zirudiena.

Bularéan zedukan unide ala inude  
batek besteren aur' bizi bat; eta bereare-  
kin andik onara zebilela, edo ura besoan  
zuela, beste lanen bat egin nayez, uste-  
kabean lasaitu ta zabaldu zuen besoa,  
ta besoko aur'a andik atera, ta erori, ta  
gelditu zen erdi ila ta agitz uratua. Bere  
lan gaizto au ekusita, gelditu zen aritua  
ta zer egin etzekiela. Bada munduko  
gauzagatik etzuken gis artan aur' ura  
beraren aita-amen begietan agertu nai.  
Oroitu zen bera, edo, norbaitek esanda,  
ikasi zuen Luzia'k S. Frantzisko Xa-  
bie' en medalarekin egin oi zuena. Ta  
Santuari aur'arentzat osasuna eskatu, ta

bilatu zuen Luzia, ta esan zion Santuaren medalez uki zezala zekusan gisan arkitzen zen aur erdi ila. Auraren gañean gurutz bat egin, ta eman zion aur berari bere espanetara S. Frantzisko Xabier'en medala. Ta medala au aren azpanetara orduko, gelditu zen aur a inudearen besotik erori baño len arkitzen zen bezain osoa ta osasun onekoa, ta nonnai ager ziteken gisakoa.

Luzia bizi zen erian ez ezik, Indiko beste eri guzietan ere, banatu zen S. Frantzisko Xabier'en medala onek egiten zuena; ta anitz eritatik eskatzen zuten ango eri, elbari ta gaitzdun gaxoak. Baña Luzia'k etzuen eskutik utzi nai bere medala; ta egiten zuena zen, ur zati batean medala bera sartu, ta bere medalarekin bera gelditu, ta beardun gaxoetara ur ura igortzea. Ta ura edanez edo artuz, ur bedenkaituz bezala, busti; ta bertan sendatzen ziran, medala berak ukitzen zituenak bezala.

Aita Santu, santutzat S. Frantzisko

Xabier klaratu zuenak, bere klarantz au egiten duen Bula berean agertzen ditu S. Frantzisko Xabier'en medaġaren urak era onetan egin zituen beste milagro bi. Arkitzen zen, dio Aita Santuak, alde ayetako gizon bat elbari perlesidun ta itsu, ta deus ere ekusten etzuela; ta arkitzen zen, zegon tokitik ezin igi ziteken eran. Berak eskatzen zuela, edo nolerebait, ekañi zioten S. Frantzisko Xabier'en ur au, ta bota zioten artatik zerbait, ur bedeikatua bezala; ta ur ark ura ukitu orduko, gelditu zen ekuste oro garbiarekin, ta batetik bestera nola nai zebilken, ta bere eskuz gauzak, edozein sendok bezain osoki, zegizken eran.

Bestea da, dio Aita Santuak, irurogei urte ta geyago zituen, ta anitz aldetatik eri ta gaizki arkitzen zen gizon bat, eta gizon, egun oro il beañ zuela zirudiena. Gizon onek ere erditsi zuen S. Frantzisko Xabier'en medaġak ukitu zuen ura; ta ur artatik tanta bat edan, ta gelditu zen, bere bizian eritasunik ekusi ezpa'lu be-



zala, ta indarretan ta beste gauz guzietan gazte bat zirudiela. Ora nolakoak San Frantzisko Xabier'ek bere itzal-medalez, ta itzal-medalak ukitzen duen urez ere, egiten dituen gauzak eta milagro andiak.

Era berekoak dira bere estanpez egiten dituenak ere. Orietatik da bigarren eguneko irakuraldian agertu genuena, edo S. Frantzisko Xabier'ek Genova'tik Itali-aldera zebilen ontziko Konpañiko aitekin ta besteekin aurtan, estampa bat itsaso aseretura botata, egiña. Baña autzi, ta adi-zazu orain beste batekin Santu berak egiña, ta len esan digun prozesosan arkitzen dena.

Bere afari, debozio ta beste gauzak egin, ta etzin zen arats batez alakorik gogoan etzuela; ta loak arturik arkitzen zen Kozin'go gizon Andres Gonzalez zeritzan bat. Eta gauerdiko lo andian sartu zeneko, iratzari zuten itxatariko ots eta oyu andi zenbaitek. Batetik bestera arazo andian zebiltzanen otsak ziran aditu zituenak. Eta otsen artean atera-

tzen ziran oyuak zioten; «¡sua, sua!; ots laster; betor ura ta ura; ¡sua, sua!» Au adituta, logurak galdu, ta, zena ariturik, oatzea utzi ta atera zen leyora, ta batera ta bestera begiratu, ta ekusi zuen zena. Ta ekusi zuena zen, bere itxe alde bate-tik eta bestetik su egiña, ta laster auts egiñik gelditzeko bidetan sartua. Zen, alabaña, arez, karez ta ariz ez, baizik olez ta zurez egiña.

Aldi artan zu an arkitu ba'ziña; ¿zer egiñen zenuela uste dezu? Yauna, eran-tzunen dezu; itxetik atera, ta ekañi al nuen ura. Andres Gonzalez'ek ere au bera egiñ zuela usteko dezu. Ez bada. Ark orduan egin zuena zen, S. Frantzis-ko Xabier'en bere gelako itzal, aintzur edo estampa bat paretatik lenbaitlen ken-du, ta leyo beretik urbiltzen zen suari agertu, ta itxeko guziak erakañi, ta bera lenenik, eta gero beste guziak belauni-katurik, berak esan ta besteak erantzutea: «S. Frantzisko Xabier, laguntzen ezpa'diguzu, galduak gara». Au da aldi

artan Andres Gonzalez'ek esana ta egiña. Eta ¿aren aldera zetoñen suak egiña? Len S. Frantzisko Xabier'ekin su berak egin zuena.

S. Frantzisko Xabier bezala, Yangoi-koaren gauzetan dabiltzan onak beren gain izan oi dute sulezeko etsaya; ta berak berez edo luñeko gaiztoren batek laguntzen diola, egiten diezte al duten gaitz guzia: eta bein alde bat, eta bein beste, egiñ ere ziozkan S. Frantzisko Xabier'i. Bada Santo Tomas Malipur'ko elizan beintzat, bere eskuz eman ziozkan tunda gaiztoak; eta itsasoan ta idoñean gizonen eskuz egiten zion zezaken gaitz guzia, ta bein suz.

Idoloen apaiz txar eta jentil itsu, gure Lege Santa arñu nai etzutenak, begi gordiñez begiratzen zien fededun egiten ziranei, ta jentil arñeko zeremoni loyak utzi ta gure Legeko gauz onak egiten zituztenei. Ta ezin ekusi zuten S. Frantzisko Xabier'ek fededun auñei eragiten ziena, edo fededun auñak jentilen yainko

txańak eta deabruaren itxur itsiori idoloak ańtuta, yostatzen dabilen zakuńak zatań bat bezala, ostikoka erabiltzea, ta su aundi bat egin, ta guziak an eře ta auts egińak uztea. Ta alkekizun au beren begietatik betiko kendu nayezen, ara bein egin zutena.

Arkitu zuten S. Frantzisko Xabień eguń igarńtzuko itxe txań edo ermit batean, ta «au bizi den ańtean ez dugu burutuko auń txań bataituekin; ta eře dezagun an bere itxearekin», elkańi esan, ta yoan, ta eman zioten itxeari edo eguńezko itxolari sayets guzietatik su ta su. Eře zen lasteń itxe guzia; ta Santua ere an eře zela uste zuten jentilak. Bańa egondu zen an Santua suaren argiarekin bere Eliz eře-zoa egiten, ta atera zen gero, surik ekusi ere ezpa'lu bezala, ta udan itzalpe andi batetik ateratzen zen zirudiela.

Era berean, bada, gelditu zen S. Frantzisko Xabień'en estanpaz eta aintzuraz bere leyoan Andres Gonzalez, itxea ingurutzen zuen suak ukitzen etzuela. Aldi

ontan egin zuen S. Frantzisko Xabier'ek geyago ere. Bada eretzen zeduzkan beste itxeak ere utzi zituen suak, S. Frantzisko Xabier'en itzal imajiñak arkitu zituen bezala ta geyago ere bage; ta gelditu zen ila ta bukatua su guzia.

Orduan zena, da geroztik S. Frantzisko Xabier, ta bere estanpekin milagro andiak egiten dituen. Adi zazu anitz urte ez dala, egin zuen bat. Gure Aita Frantzisko Rabago Erroma'n ere Teologiko maisu, gero Gaztela'n probintzial, ta azkenean Fernando Seigaren gure eregeren konfesor izanduak, al zuenean, egiten zituen bere misioneak. Orietatik bat egiten zuen erian, eskuetan artu zuen aur' batek amaren orantzontzia; ta erabiliz, idiki ta ezpañatera eraman, ta zer egiten etzekiela, aizez tiratu ta sartu zituen eztañian an zeuden orantz guziak; eta asi zen bereala negarez ta estulez, itorik laster gelditu bear' zuena bezala. Bertan ezagutu zuen amak agitu zena. Aoa zabaldu ta begiratu zion eztañira;

baña etzen o'ratzik ageri; sartuak ziran guziak ba'ena. Bere au'ra besoan ar'tu, ta yoan zen Aita misionistagana, ta eskatu zion Santuren baten laguntza. S. Frantzisko Xabie'ekin zuen onek bere debozioa; ta Santuren estanpatxo bat ar'tu, ta ukitu zion arekin au'ari ezta'i o'ratzduna; ta estanpak au ukitu orduko, estultxo bat egin, ta bota zituen au'ak o'ratz guziak, eta gelditu zen, alakorik espa'liz bezala.

Ar'zazu, bada, Santu beraren debozioa ta meda' edo estanpa, ta balia dakizula bea'aldietan. Bai a'ren bai.

---

## SEIGAÑEN EGUNEKO IRAKUÑALDIA

**Gaya. Andia da bere aldaretan**

**San Frantzisko Xabier'ek**

**agertzen duen eskua**

*Oculi... mei erunt aperti et aures meae erectae ad orationem eius qui in loco isto oraverit. 2 Paralip. 7,15.*

San Frantzisko Xabier'ek munduan ba-ditu anitz eliz, eta zenbait eritan agitz andi edeñak. Orietatik da Españiko korte Madrilen duena; bada da ango andien, edeñen, apainduena. Bere izeneko elizik ez duen eri askotan ba-ditu S. Frantzisko Xabier'ek bere aldar apaindu politik, eta aldar, an egin dituen gauz andi ta milagro anitzen beña, oroitzapen seña-lez ematen dutenak.

Bea den aldian luereko edozein bazte-

retan ta itsaso beraren erdian ere egin dakioke Yangoikoari otoitz, eta eska dakieke berari edo beraren santuren bati edozein gauz eta milagro. Baña, alba'da, eskantz au Yangoiko beraren elizan ta Yangoikoaren Santuen aldar aitzinean egin bear' den gauza da; zeren eliza eta aldarea den Yangoikoak artarako berezi digun tokia, ta toki, Elizaren kontsagrantez edo bedeinkatzez santutua; ta oregatik da toki, eskatzen diran gauzak erdisteko agitz egokia.

Au guri adirazteko da Yangoikoak erege Salomon'i bein esana. Erege Salomon'ek Yerusalen'en asi ta bukatu zuen eliz bat. Eta aren presenta Yangoikoari egin zion aldian, aditu zuen Yangoiko beragandik; «artzen dut, bai, nik nerezat eta onara datozenen otoitzak aditzeko, toki ta itxe au. Ta Israeldaren bekatuak aserera zita, nik odehyak agortzen ditudanean, ortz gaiztozko mamoroz bazter' ereñiak betetzen ditudanean, edo itxeak eriz betetzen ditudanean, ona-



ra etoñi; ta emen nik beren bekatu guzien damuz beteak ekusten ba'ditut, adituko dut orien otoitza, barkatuko dieztet beren bekatu guziak, kenduko dieztet ar ta mamoro gaiztoak, eta emanen dieztet eskatzen didaten ura ta bear dufen beste guzia; ta noiznai toki onetara etoñi ta emen otoitz egiten didana ekusteko, ta eskatzen didana aditzeko, idiki zabalak idukiko ditut begi belarñiak. Au da, alabaña, Israeldarekin ditudan egitekorako berezi dudan tokia, ta toki santua.

Len Israeldarentzat Yerusalem'go eliza zena, da gaur fededunentzat edozein eliz eta elizeko aldare, naiz Yangoiko berarena izan, naiz Santuren baten izenekoa eliz edo aldarea. Oregatik, bada, eliz berean ta eliza aldareetan, beste toki ta bazteretan baño, gauz andi ta milagro geyago egiten ditu Yangoiko berak berez ta beren Santuz. Ta bere aldareetan San Frantzisko Xabier'ek egin dituenetatik bat edo beste ekusi bear dugu oraingo aldian.

19 Ezkondu ta zenbait urtez umerik bage bizi zen andre bat. S. Frantzisko Xabier'en eliz edo aldarera yoan ta eskatu zion bein, beriz ta askotan seme bat. Eta lenbizian ez aditu bezala egin ba'zion ere, azkenean agertu zion aditu zuela aren otoitza; ta eskale berak ezagutu zuen aur'dun arkitzen zela; ta gelditu zen poz eta atsegintz agitz andiarekin; ta bere aur'dun denboran ta erdiarte guzian ibili zen S. Frantzisko Xabier'i esker ta eskerak ematen ta erditz on bat eskatzen. Lotu zitzayon noizbait bere erdi ordua ta oñazea, ta erdi zen anitz luzatu bage; baña ez berak nai bezala; bada ekusi zuen alaba zela ta ez semea egin zuena.

21 Au ekusita, ilundu zen ordurañoako aren poz guzia, ta S. Frantzisko Xabier'gana ere gelditu zen, Yangoikoak zekien bezala. Ta yaikitzen asi ta zerbaif bizkoitu zenean, bere alaba besoan artu, ta yoan zen elizara; ta S. Frantzisko Xabier'i eskerak eman bearean, asi zen naigabetu baten beriketari ta esaten;

«beste guziak atsegintzez betetzen dituzun Santua, ¿zergatik uzten nazu ni naigabez betea? Atsegintzez betetzen dituzu besteak, bakoitzari eman ez eskatzen dizuna. Nik gauz bat eskatu dizut zuri, ta niri zuk au ukatu didazu; bada nai nuen gauza nik zuri eskatu, ta zuk niri eman didazu nai ez nuena. Ta emate au, ez ematea diña da. Ta nolana, ora non dezun zere eřegaloa».

Au esan, ta utzi zuen Santuaren aldean bere alaba, ta baztertu zen zerbait, agitz zapuztua. Alere, etzen elizatik atera, ez eta Santuaren aldaretik urundik ere. Ta bere biotzeko miñarekin, ta zuen seme nai andiarekin, ez dakigu zer izan du zen S. Frantzisko Xabier'i aldi artan ark an zesana. Guk dakiguna da, San Frantzisko Xabier'ek biotzean ukituta, yaiki zela belauniko zegon tokitik, eta yoan zela beriz Santu beraren aldeana, an utzi zuena ekustera; ta arkitu zuela an utzizuen alaba seme egiña. Zenbat bere poz eta atsegintzekin, ez da eřaz

orain guk adiraztea. ¡Zer eskeñak andre ark orduan S. Frantzisko Xabieñ'i emanak! Eta ¡zer debozioa, Santu berari gerozko bizitzan izandu ziona! Nai ta ez, andia. Bada agitz andia izandu zen San Frantzisko Xabieñ'gandik arñu zuen ontart eta milagro beria.

Emengo gisan, Indian ere fededun, jentil ta turkoak ibiltzen dira saldu erorian, ta beren beste egitekoz eñi ta probintzi batetik bestera; ta turko ta jentilak ekusten dute an ta emen S. Frantzisko Xabieñ'ek fededunen alde egiten duen milagro au edo ura; ta zenbaitek, fededunen gisan, aren aldera urbildu ta eskatuz, erditsi dute, beren idol txareñi edo Mahoma'ri eskatuta, ezin zutena. Adizazu orietatik batena.

Andre jentil ezkondu bat bizitu zen luzaro orain ekusi dugun beste au bezala, umerik bage ta seme bat izateko nai andiarekin. Bere nai onek zerabilela, ibili zen zenbait urtez idoloz idolo, seme bat eskatzen ziela. Baña idoloak

zur puskak, sagukabiak eta deabrutegi zikiñak dira, ta, semerik ez ezik, pits bat ere ezin eman dezaketen gauzak; eta azkenean, andre gaxoa utzi zuten bere nai utsarekin ta umerik bage.

Aditurik, bada, ura bezelako zenbaitekin len S. Frantzisko Xabier'ek egiña, yoan zen Santu beragana, ta eskatuzion bere idoloetatik erditsi etzuen semea. Ta idoloen aldareetan bezala, San Frantzisko Xabier'en aldarean etzen ustel atera andre gaxoaren uste ta eskantzua. Bada, San Frantzisko Xabier'i seme bat eskatu, ta laster' umedun gelditu zen; ta urtea baño len izandu zuen nai zuen ta Santuari eskatu zion semea.

Atsegiñez zoratua bezala gelditu zen bere semearekin andre jentil au; ta ilbete biz ibili zen pozez zertan dabilen ez dakien baten eran. Baña il orien buruan semea gaitzez il, ta gelditu zen negu gogoñeko gau ilun otz baten gisakoa; erdi erotu, erdi amur'atua. Ta azkenean egin zuena zen, bere seme ila artu, eli-

zara yoan, S. Frantzisko Xabier'en aldarrera urbildu, aldarean arkitzen zen Santuari begi zorotzez begiratu, aur'ila aldar aitziñean utzi, ta Santuari esatea: «semerik ez ematea baño gaiztoago izanda bi ileko niri zuk au ematea; bada au ila ekusi dutenak urikaltzen ziran nitaz len, ta orain iri ta iri egiten didate; ta ora zuretzat, nai ba'dezu, eman didazun semea».

Au esan, ta artu zuen bere itxerako bidea. Baña S. Frantzisko Xabier'ek zerbait egiñen zuelako ustean, edo bere umeari zion ongi nayak tiratzen ziola, itzuli zen utzi zuen bere seme beragana; ta eskuetan artu ta begiratu zioneko, ekusi zuen begiak idikitzen zituela, ta zabaltzen zuela aoa, amaren bulara eskatzen ba'lu bezala. Ta ama jentilak au ekusita; «¿zer? — esaten dio — «¿Zer? ¿bizi zara, nere semetxoa?» — «Bai, bizi da», esaten die an arkitzen ziranei — «ta bear du titia». Ta eman ta ekusten du artzen duela, gaitzik ekusi ezpa'lu be-

zala. Eta S. Frantzisko Xabier'gana itzuli ta eskatzen dio leneko bere era-kerien barkantza, ta bigarren bere mila-groagatik milaka eskeñak eman, ta ba-diyoa bere semearekin, agitu zenaren beña banatzen duela.

Ora zer milagroak bi aldi oyetan. San Frantzisko Xabier'ek bere aldarean egiñak. Bai; bada biak bezain ekustekoa da orain adituko dezun irugarrena.

Tomas Croze zeritzan gizon batek izandu zuen S. Frantzisko Xabier'ek andre jentil onekin ta onen semearekin egin zituen milagro andien beña. Beri au ark artu ezkerro, eritu zen, ta agitz gaizki, beren seme txiki, guztiz ark maite zuen bat. Ain maiteari bezala, egin ziozkan sendatzeko ziran laguntz guziak. Baña guziak atera ziran ustel; ta zenbait egunen buruan il zen Tomas'en seme maitea.

Itxeko guziak asi ziran auraren ilerirako gauzak prestatzen. Elizko nagusiari eman zioten auraren il beña; argizagigi-

leari eskatu zioten il̄ ontzirako bear̄ zutena; il̄oyalaren eske bidaltzeko zeuden dendara, ta ezkīlei emanerazteko il̄-otsa ta bēria. Eriko ezagunak eta Tomas'en aide ta auzoko guziak bildu ziran aren itxean, bere semearen eriotzak eman zion naigabentza beren itz onez zerbait arintzera; ta asi ziran emendik bata ta andik bestea, artako zen guzia ari esaten.

«Baña ¿zer?—esaten die Tomas'ek bere aide ta adiskide guziei: «¿galdu dudala nik zuek uste dezute nere semea?—  
«¿Zerbada,—erantzuten diote bere aide ta adiskide guziak—; «il da ta.»

—«Il? — esaten die Tomas'ek — «Eta ¿etzen il bi ilbete orduko, araistian aditu dugun andre jentil aren semea ere? ¿ta galdu zuen ark aregatik au?

—«¡A! baña S. Frantzisko Xabier'ek» —erantzun zioten Tomasi bere aideak eta beste adiskideak—«biztu zuen milagroz aren semea.»

«Ongi; ta» — esaten die Tomas'ek — «¿S. Frantzisko Xabier'ek arena bezala



ezin biz dezake nere aur̄ il̄a ere? ¿Edo andre jentil batena diñako ustearekin ezin eska dezoket nik Santuari biz diezadala?

«Beude, bada, beude, geldirik—esaten die gero bere itxekori—, aur̄aren obirako argizagi, ezkil ta prestantzaki; eta goazen S. Frantzisko Xabier'i eskatzera nere aur̄ il̄aren bizia.» Yaiki ta badiyoa, andre jentil̄a bezala, elizara ta Santuaren aldarera, ta esaten dio Santuari; «ez dut uste ukatuko didazula niri, zure itxekoari ta fededunari, anitz ez dela, jentil arotz bati eman diozun ondasuna. Indazu, bada, niri ere S. Frantzisko Xabier, nere aur̄ il̄aren bizia; ta au zuk, nik eskatu, ta biztu didazulako poza ta atsegintza. Nere bekatu gaistokgatik, ez dagokit niri onenbat zure ontart eta fabore. Baña eskatzen dizut, nere aur̄tasunetik dudan kristau siñistaren alde, ta naigabetuekin beti zuk izan du dezun ur̄ikaltz andiagatik.»

Au guzia esan zuen Tomas Croze'k

deboziazko negaía ta negaía zeriola. Au esan ondoan, egin zuen S. Frantzisko Xabier'en aldareari limosna andi bat egiteko botoa; ta au ark esan ta egin orduko, biztu zen, jentil amaren seme íla bezala, Tomas'en aur íla; ta gelditu zen, gaitzik ekusi ezpa'lu bezain ona ta bizkoía; ta bete zen pozez ta atsegiñez Tomas'en itxea ta eñi guzia.

Baña itxozu. Etzen emen bukatu San Frantzisko Xabier'ek Tomas Croze'ren semearekin egin zuen milagro guzia. Urteak yoan, ta eritu zen beñiz, ta len bezain gaizki, Tomas'en seme len íl au; ta iltzeko puntura zenean, lasterka Tomas'ek S. Frantzisko Xabier bere aldar-ean bilatu, ta eskantz eta boto beñi bat egin ta erditsi zuen beñiz ere bere seme beraren bizia. Andik zenbait urteren buruan eriotzeko trantze berera zen Tomas'en seme au; ta irugañen aldian Tomas'ek otoitz bera ta promesa S. Frantzisko Xabier'i egin, ta erditsi zuen bere semearen bizia ta osasuna. Ta anitz urte

izandu zen mutil̄ au S. Frantzisko Xabieʼen milagrozkko gizona.

Ora zer den S. Frantzisko Xabieʼek bere aldaretik bilatzen dutenen alde egin dezakena. Artu, bada, berarekiko deboziantia, besteei bezala balia dakizun zere aldi edo beara agertzen zaitzunean. Bai aŕen, bai.

---

## ZAZPIGAÑEN EGUNEKO IRAKUÑALDIA

**Gaya. Animen ona da S. Frantzizko  
Xabier'ek bere milagroak bilatzen  
duena.**

*Signa autem eos qui crediderint  
hac sequentur. Mark. 16,17.*

Yangoikoak apostol yaunak munduan banatu zituenengan, banatu bidaldu zituen milagroak beteak, edo milagro egiteko, nai adiña esku ematen ziela. ¿Zertako, uste dezu? Beren yan edana ta soñerako beaño zutena irabazteko? Ez bada; beste bidez au bilatzen zuten oriek. ¿Zertako, bada? Beren egiteko andia obeki egiteko, ta munduko guziei agertu beaño ziezten ebanjeliko egi andiak siñisteraz-

teko; ta zerurako ba'ziran, artu bearko zuten birtutezko bide latza arerazteko. Ta onetarako bearko zuten apostol yaunak, dio S. Tomas'ek, milagroen laguntza, ta bearko zuten, dio doktore S. Gregorio'k, aurak esnea, ta mintegitik mintegira ta sarga'dira aldaratzen diran landare be'riak ura bezala. Bada urik ez duen landare arbolgai be'riak ez du lurik artuko; ta esnerik bage, ez da aur yayoberia aziko; ez eta, dio doktore santuak, milagrorik bage jentil itsu gaiztatuen animan zeruko sinistantzik eta birtuterik ere sartuko; *miraculis erat nutrienda.* (1)

Indietan len S. Frantzisko Xabier'ek egiten zituen milagroetatik anitz izandu ziran ango jentil itsuei ta Mahoma'ren legeko gizon gaxoei gure Lege santa ta Lege santak agertzen duen bidea arerazitzeko. Gaur ere gendagiros beretatik dira ango geyenak, eta geroz an egiten dituen milagroak ere

---

(1) Hom. 29 in Evang.

alde berera zuzenduak izaten dira. Ta an ta emen ta munduko beste bazter guzietan egiten dituenak munduko beren ona ta zerua bilatzen dutenak dira. Bada guziak egiten ditu, Yangoikoaganako onginaya ta amorea ekusten ta ikasten dituzten guzien biotzetan sañerazi nayez; edo ekusten ta ikasten dituztenak gaiztoak ba'dira, onerazteko, ta onak diranean, onduagoak edo obetuak uzteko.

Anitz aldetarakoak dira Santuak eskatu ta Jaungoikoak egiten dituen milagroak; eta ematen diegu guk Santu bakoitzaren milagroen izena, bakoitzak eskatuz, edo bakoitzak bere aldian baliatzen dela, milagroak berez egin ditzakena; *qui facit mirabilia solus*. (1) Santuen gis onetako milagroak, bada, dira ilak biztea; iltzen daudenak edo agitz eri ta indar gutirekin arkitzen diranak bat batean sendatu ta sendor uztea; besorik edo oñik bage arkitzen dena besodun

---

(1) Ps. 35, 4.

edo oindun uztea; ta batek berez edo lurreko laguntzekin ezin dagiken edozein beste gauz egitea.

Yangoikoak, bada, ta Yangoikoaren Santu guziak beren milagroz bilatzen dutena da Yangoiko beraren onra ta gurre ona; baita milagro berak, eriari osasuna ta beartsuari ondasuna emateko, egiñak diranean ere. Bada gañez bezala ematen diran gauzak dira emengo gauzak; eta gurre animen ona ta Jangoikoaren onra da Santuak berez ta beren milagroz bilatzen dutena. Ta onetarako ez diran gauzak eskatzea, bere lepoa ebakitzeko den kanibeta batek eskatzea bezala da. Eta diogun onerako dela nai ba'zenu ere, ezin uka dezakezun gauza da orain adituko dezun gizon batekin S. Frantzisko Xabier'ek bein ta birretan ta irur aldiz egiña.

Frantzisko Fernandez zeritzan bat zen zori oneko gizon au. Zori gaiztoko ibil makur askotan sarturik zebilen gizona zen gizon au, S. Frantzisko Xabier'ek,

agertuz, meatxuz ta ekusiko dezun adiña bidez onerazi zuen artean. Bada artearño besteren andre batekin, aragi gaiztoak eragiten dituen zikinkeri loyetan ta sekulako sugai itsusi arigaritan ibili zen gizon au; ta ibili zen itxekoen isilka, gabaz, ilunbean, ta anitz diru ez ezik, gorputzak eskatzen duen loa ere galtzen zuela.

Gis onetan gau guzia galdu ta itxera itzultzen goiz batez, sartu zen elizan ta urbildu zen oi zuen eran S. Frantzisko Xabier'en aldarera, Santuari zerbait otoitz egitera. Loak garaitu ta laster utzi zuen bere otoitza. Bere esku bietan aurpegia ezañi ta urbildu zuen paretara, ta bertan gelditu zen loak artua.

Loak artu orduko, ekusi zuen aldaretik yaitsi ta beraren bilan zetoñela S. Frantzisko Xabier; ta aren aldera zeneko, esaten ziola: «¿non zabilta, Fernandez, ta zer egiteko da zere eskutartean dakartzun galgaría? Noiz utzi uste dezu dakartzun bide makuña? Begiratzen diozun



baño geyago ¿ez diozu begiratu bear Yangoikoari zor diozun amoreari, ta zori tristeko andre ezkondu aren onrari? Zokora tiratzen den tresnatzaña, edo zer da zure amina? Bada zere gorputz gaiztoari atsegin loi lotsagañi bat egiteagatik, usten diozu beretzat deabru amuñatuari, ta deabru, sekulako neke tormentuz uratzen ta leitzen iduki nai zaituenari? Begira: zentzutzen ezpa'zara, itsutzen zaituen andre gaiztoa zuretzat izanen da sulezeko zure etsairik andiena, ta sierpe ta dragoi geyenik ozkatuko ta atzaparkatuko ta amuñeraziko zaituena. Zere animari zor diozun onginayagatik, bada, Fernandez, ta izandu didazun debozi piskagatik, bide galgañi oretan ez beriz oñik sartu; ta dadukazun baño geyago ez, añen, Yangoikoa aseretu».

o Au ari esan ta igan zen S. Frantzisko Xabier bere aldarera, ta iratzañi zen Fernandez, ta iratzañi negañez urtua, ta S. Frantzisko Xabier'i anbat egiteko eman ziolako damuz betea, ta naigabe

berirako biderik ari eman baño len bizia galduko zuela esaten zuela. Orduko aren asmo onak eta biotzeko tristantzak iraundu zuten zenbait orduz, baña ez egun oso bat ere; aiñ andia zen aragiaren atsegintz loyetarako arturik zedukan markurtza, ta atsegintz beren keak ematen zion itsumen lilurantz; ta goizetik aratserañokoa izandu zen, ta luzeago ez, Fernandez'en urikaritz guzia.

Eguna iluntzen asi, ta asi zen Fernandez ordurañoko aratsetan egiten zuena gogoan erabiltzen, ta bere erabiltze onek berotu zion oi zuen gisan atsegiñetarako grin gaiztoa; ta au berotuz bezala, oztuz ta galduz yoan zen S. Frantzisko Xabier'i goiz artan eman zion itza; ta berak nai bezala, asi zen bere gogo gaiztoari esaten; erakeria ta ametsa, egun goizean nik izandu dudana. Aurak dira ta atso buru txarekoak ametsen bidez gauzak egiten dituztenak. Alde bat, bada, ametsak; eta goazen genbiltzan bidez nere begira egonen den aren itxera. Ta au

esan, ta aítzen du arako bidea; ta aráts artan izaten da lenagokoetan bezain gaiztoa.

Uréngo goizean andik atera ta sar-tzen da bidenabar leneko goizeko gisan S. Frantzisko Xabier'en elizan, ta urbil-tzen da Santu beraren aldarera, orduan ere an otoitz egitera. Sar-tu zen elizan, otoitz labur bat an egin ta bereala itxera-ko bidea artzeko asmoan. Ta an egondu zen ar-tean ere, egin zuen al egiña begiak ongi zabalduak eta lotara bage iduki nayez. Baña alere, Santuak naita, bat batean gelditu zen lo; ta bere aldaretik yaitsita, beragana zen bigaren aldian S. Frantzisko Xabier.

¿Nola uste dezu? Bakez ta itz mee zenbait, leneko aldian bezala ari esatera? Ez; baizik bekaitz arigarí bat erakusten ziola, nork daki zenbat meatxu egitera, ta agitz gogoorki ari esatera, «¿ez dezu alkerik emen atzo eman zenuen itza autsi, ta nere aldare onetara urbiltzeko? Gezurí gaizto, ezkontzen zikingarí, gi-

zon loi bekatuz galdua, ¿etzen aski nik bein zuri esatea etzindezela bart izandu zaran itxera beriz itzuli, sekulan ara zu ez itzultzeko? ¿Zeren bila zabilta? Nai dezu gau, bigar edo urango aratsen batez tiro bat dizuten zure gorputz gaiztoa obira, ta lenbaitlen anima loi zikiña sulezero ta deabru gogoren atzaparetara bota aurtikitzeko, ta betiko neketan an ondaturik uzteko? Lotsarik ez dezun eskergabea; beriz aratsen ba'zera...»

Au esan ta igan zen S. Frantzisko Xabier bere aldarera; ta esnatu zen gizatza zikin lotsabagea; ta esnatu ta iratzari zen, zen guzia aritu ta ikaratua, ta alkez begirik aldarera ezin goratu zuela; ta an bertan S. Frantzisko Xabier'ek egiteko gaiztoaren bat egin zezan belduñez betea, yoan zen andik iges bere itxera; ta gau ta egun ibili zen ilbetez S. Frantzisko Xabier'en beldu andiarekin, ta andre gaiztoaren itxera urbiltzen ere etzela.

Baña ora zer den aztur gaiztoa ta

aragi galduaren atsegintz zikiñen oikura bezain oikur kutsaria. Egunak eta asteak yoan, ta epeldu zen S. Frantzisko Xabier'en itz meatxariak Fernandez bekatariari sartu zion beldua. Denbor berean anditu zen aren atsegintz debekaturakosu ta grin gaiztoa; ta bere su grin gaiztoak burura bidaltzen zion lañoarekin asi zen itsutzen ta esaten; lenbiziko ametsa bezain amets eroa izandu da S. Frantzisko Xabier'en aldar aldean azkenik izandua; ta orain ere ba-noake, zion, leneko andre beraren itxera. Baña egin bear dudana da, S. Frantzisko Xabier'en elizan oñik beriz ez sartzea, etor ez dakidan lenakoak bezalako amets izugaritxañen bat. Eta au baño gaiztoagoa zen, S. Frantzisko Xabier'i zion debozio piska ta egiten zion zerbait erezo uztea; ta espa'liz baño geyago, artzaz ez oroitzeko asmoa artzea.

Bere asmo galgari au artuta, artzen du bere atsegintz loyetarako bidea; ta uringo aratsetan ere ba-dabil bide gal-

gañi berez, ta S. Frantzisko Xabier'en igeska ta gordeka, uste etzuen bidez Yangoikoak ura bilatzera beartu zuen artean. Ara nola.

Bere ibiler gaiztoen artean eldu zitzaion Fernandez'i burutik oñetaraño umore lodi gordin oñazez betetzen zuen bat. Umore au sartu zitzaion ezuren biltegi ta yuntur guzietan, baita zituen gorputzeko zain guzietan ere; ta ez eskurik eta ez oñik eta ez eribeatzik igi zezaken, oñazez leitzeko tzantzeren bat ekusi bage. Gaztea zen oraindik Fernandez, ta ondasunduna; ta beregandik bere gaitza kendu nayez, barbertan, medikutan ta sendagaitan gaztatzen zuen kupide bage. Baña eriarentzat etziran deusetako barber medikuen al egiñak eta sendagai guzien indařak. Eta guzien ondoan gelditu zen iltzeko frantzean ta Elizakoak artu beař zituelako beñiarekin.

Beñi au aditu ta oroitu zen S. Frantzisko Xabier'ez; ta damuz beterik ez egiñaz bein ta beñiz bere amets onetan

ark adirazia, asi zitzayon biotzez esaten; «ja nere Santu maitagarria! egin ba'nu nik nere onerako elizan zuk esaten ziñidana, gauñ ez nintzan gorputzez ta animaz arkituko arkitzen nazan eran ta gisa urikalgarri onetan. Ora zertara nauten nere atsegintz zikiñak. Obira doa lasterka ta oñazez beterik nere gorputz, bekatzuz nik len agitz loitua; ta nere bekatu berakgatik agitz belduñ naz onda dakidan betiko sulezean nere anima. Zori gaiztoan yayoa ni, nere anima bein ara ezkerro. Ez dizut orain eskatzen gorputzaren osasuna ta nere oñazeen arintza: eskatzen dudana da, nere bekatu zikiñen barkantza; ta au da zuk, S. Frantzisko Xabier, gauñ niri erditsi bear didazun gauza; izan ez nadin zure debozioko doktore Santu S. Geronimo'k sulezean arkitu zituen anitzen laguna; bada dio, aratzen diran eunetatik larogei ta amar ta geyago aragiaren zikinkeriakgatik aratzen dirala.»

Eriak au esan orduko, agertu zitzayon

irugañen aldian S. Frantzisko Xabier, ta galdetu zion; «¿ezagutzen nau? Eta ematen ba' dizut eskatzen ez didazun osasuna ere ¿onduko zara zere bizi guzira? eta ¿oraindañoko bide makuak utzi ta artuko dezu, fededun on batek artu bear duen bizitza, edo ongi ta maiz confesatzea, buruz ta nekez zere gorputz gaiztoa eskuratzea, al dezun ona bearitsu gaxoei egitea, bide gaiztotan oñik ez sartzea ta Yangoikoaren Legeak eskatzen duen beste guzia?» «Bayetz ta bayetz»—yuramenturik eriak esan, ta San Frantzisko Xabier'ek bere bedeikantza eman, ta utzi zuen anima ta gorputz sendatua. Ta geroz il artean bizitu zen Frantzisko Fernandez garbiro ta santuki. Ora Santuak beren milagroak bilatzen dutena; bilatzen dituztenak animan ondorik edo obetuak uztea. Eska zayozu S. Frantzisko Xabier'i dagiela aldi onetan milagro au zurekin ere. Bai añen, bai.



---

## ZORTZIGAREN EGUNEKO IRAKUÁLDIA

### **Gaya. Agitz andia da S. Frantzisko Xabie' en beartsu gaxoekiko urikaltza**

*Charitas patiens est, benigna est. 1. Cor. 13,4*

Ongile urikaltia da beartu gaxoak gogo osoz bilatzen dutena; ta era edo gis onetako ongile bat bilatzen dute, San Frantzisko Xabie' bilatzen dutenak; eta ongi egiten dute. Bada bere bizian urikaltia zen Santua, ta il ta zerura ezkerro, agitz urikaltuagoa da; zeren eriotzarekin ez dira galtzen; ontzen ta anditzen dira Santuen birtute ta gauz onak. S. Frantzisko Xabie' en leneko urikaltza ekusteko, aski da bera edozein ontzitan, edozein presondegitan, edozein ospitaltan, edo edozein itxe beartsutan ekustea. Ba-

da urikaltz garbi andiak eragiten duena da an onek egiten duena. Atoz ezperen, Portugal'tik Indira eramán zuen ontzian ekustera.

S. Frantzisko Xabier' Indietako bidera zenean, batetan atera ziran Portugal'tik zenbait ontzi; ta éregek ala naita, atera zen ontzi, ark zuen urikaltz andia agertzeko, guztiz egokian. Bada zen ontzi mariñel ta soldadu ta gizon geyago zituenean, ta berez, zenbat ere geyago ontziko gizonak, anbat geyago ontzi bereko bear' gizonen gaitz eta gizonen eritasunak: eta oregatik andiagoa, urikalti baten urikaltza agertzeko bidea.

S. Frantzisko Xabier'en ontzian arkitzen ziran mil gizon bezela; itxe baterako gizasail arigaña; ta eguzkipe érean, ta ur gazi gañean zebilén, eta anitz ilbetez itxetik ateratzen etzen onelako gizasalarrentzat etxe agitz erikoña. S. Frantzisko Xabier'ekin Portugal'tik ontzian atera ziranetarik, anitz gaitzez ta miñez il ziran bidean; beste anitz, eriotzaren ortze-

tara ziran, ta gaitzik gutien ekusi zuena, gaizkitu zen edo egondu txarri ta eri; baita S. Frantzisko Xabier bera ere.

Ala ere, S. Frantzisko Xabier izandu zen beste guzien laguntzale, sendatzale ta ongile; ta ongile, sendatzale ta laguntzale urrikaltia. Itsasoko ber irur il lenbikoan agitz nastua erabili zuen Santuak bere bañen guzia; ta oñen gañean ere doi doya ibili zen denbor oretan; ta denbor berean izandu zen beste guzien oin ta eskua, eri bakoitzari zegokan guzia egiten ziona, ta eri guziei beren beařaldietan laguntzen ziena.

Bera ere eri, ta eriei laguntzen gobernariak ekusi, besotik artu ta eraman zuen bere aldera ta bere maira, esaten ziola; «Aita, beste egiterako, ta inditar guziak fededun egiñak uzteko, bidaltzen zaituzte eregek, Aita Santuak eta Yangoiko berak. Eta erien artean emen iltzen ba'zara, gaizki egiñen dezu zere egiteko au. Bestela ere, zu zaitzeko esku ta manuarekin igortzen nau ni nere ere»

gek; eta gaizki nik zai zaitzaket, zauden bezain eri arkitzen zerala, uzten ba'dizut gau ta egun orenbat eriren ta iltzen daudenen artean.»

Mil ezker eman ziozkan S. Frantzisko Xabier'ek gobernari; ta zituen era politekin ta bere ezpañak iriz edo fazez eztiturik, asi zitzayon esaten; «ongi, yauna; nik maite ditudan ontziko gaxoak iltzen daude, ta laguntzalerik ez dutelata, ¿nola nik orien onerako zerbait dagikedanak, utziko ditut laguntzik bage? Ez, gobernari yauna, mundu guziagatik ezin dagiket au nik, Lagundu bear diot, bada, eri bakoitzari, edo guzien artean emen bertan damuz ila gelditu bear dut nik.»

Au adituta, sorbaldak goratu ta muturik, yoan zen gobernaria beste aldera, ta S. Frantzisko Xabier bere erietara; ta ibili zen gau ta egun batetik bestera sei eun eri beintzat zituen ontzi ospital artan, konfesatzen bata, oliatzen bestea, maneatzen oni bere oatzea, eramaten ari eskatzen zuen yatekoa edo sendagaya,

ta kentzen beste bazterekoeri zerion materi ta usteltasuna.

Eskean bilatu ta eramaten zion beartsuari; bere eskuz maneatzan zion yatekoa; egiten zien oni ta ari beren garbitasuna; ta ura baizik ezpa'liz bezela, ematen zion eri bakoitzari bere eskua ta laguntza. Indarrik etzuenari besoa sartu ta goratzen zion lepoa ta burua, artu beartzen salda, zukua, edo edaria arerazteko; ta esku oyala artu ta idortzen ziozkan bere ezpañak. Bazebilen batetik bestera, bakoitzari nola arkitzen zen, edo zer etzuen galdetzen, ta artu beartzena ematen; ta itz onez guziei beren gaitz, kezka eta naigabeak arintzen.

Iltzen zegon bati laguntzen ari zenean, aditzen zituen andik eta emendik deitzen amaren otsak, eta ots, iltzeko prestatu nai zutela ziruditen erienak; eta eskutartean zuena alik ongiena prestatu, ta yoa-ten zen beart geyena zuela zirudiegana, ta esaten zien beste guziei; itxozue gutitxo bat; emengoa laster egin, ta zuekin

naz; ta egiten zuen esaten zuena. Baña ots egin ziotenekikoa egin orduko, ots egiten zioten beste ainbestek, eta orien ondoren besteak eta besteak; eta goize-tik aratseraño artan ibiligatik, etzuen bukatzen bere lan au; ta gabaz ere luzaro artan berean hari zen San Frantzisko Xabier.

Berekin zuen gaitzak eta nekeak garaituta, lo pizka bat egitera biltzen zen aldian etziten zen ontzi gañeko ol gogorean, ta artzen zuen buruperako an zeutzan soka bilduetatik bat; eta eriren baten lenbiziko ots edo ay bat aditu orduko, an zen aren bazterean ari bere animako lanetan, edo bear zuen beste edozeñetan laguntzen; ta bere lotegira etzen itzultzen, eriaren gauzak, eri berak nai bezala, egiñak utzi artean. Ta guztiz labuía izaien zen len ta gero egiten zuen loa ta artzen zuen atsedentza. Ta yaiki orduko sartzen zen bere erjen artean, ta leneko eguneko egiteko berean ta egiten zuen lenekoan bezain zinki ta urikaltz andiarekin.

Ar্তু zuen S. Frantzisko Xabier'ek ontzien gobernari ta beraren ontziko nagusi yaunak berezi zion gel modu bat; baña ar্তু zuen, non egon etzuten eri gaxoak eta gaizkien arkitzen ziranak an sartzeko; alderagotik an berak, berezkiago ta obeki laguntzeko; ta S. Frantzisko Xabier'ena ez, baizik erumes beartsu gaxoena zen S. Frantzisko Xabier'i gobernariak beretzat eman zion gela.

Gelaz egiña egiten zuen S. Frantzisko Xabier'ek gobernari berak ematen zion yanari bereziarekin; ar্তু, ta beartsu eriei ematea, ta Yangoikoaren izenean ematen zioten ogi zatiren batekin bera gelditzea. Alde guzietara S. Frantzisko Xabier'ek al egiña egin ta ere, anitz eta anitz izandu ziran ontzian il ziranak; eta il ziran guzietatik etzen il bat ere, S. Frantzisko Xabier'ek konfesioz, komunioz, itz onez, ta zezaken bidez laguntzen etziola.

Ontzi bañeneko tokirik azpirenekoan ta txañenean arkitzen ziran gizon ezerezenak, eta eri beartsuenak, eta gizon eri,

laguntz guti edo bat ere etzutenak. Orien beria aritu orduko, aritu zuen S. Frantzisko Xabier'ek arako bidea. Au ekusi zutenak lasterka yoan ta besotik itsasi, ta, arituak bezala, asi zitzazkan esaten; Aita, Aita, ta nora zoaz? Or bertan ilik gelditzera? ¡Ez, Yangoikoagatik! Zaude emen; ta emen ere egiten dezunarekin, Yangoikoaren milagro bezala izanen da luzaro zu bizitzea.

o Baña S. Frantzisko Xabier'ek begi eskerdun leunez geldirazi nai zutenei begiratu, ta eztizko itz on zenbait esaten ziela, sosegarazi zituen; ta gogoan arerazten ziela, ontzi gañekoak eta ontzi erdikoak bezain animadunak eta animadun bataituak, eta bataitu Yangoiko berak agitz maite zituenak ziralta ontzi ondoko eri gaxoak; eta ontziko eri guzien artean ayek ziralta eri urikalgarrienak, eta animako eta gorputzeko laguntz geyagoren bearean arkitzen ziranak. Ta geldirazi nai zutenak geldirazi zituen, ta orien igesi bezala, sartu zen



azpiko eri gaxoen egontegi ilun zikiñean; ta ara sartu orduko, esan ziezten itz egoki urikarizkoekin arindu zituen guzien biotzak; egondu zen gero bakoitzarekin berak nai adiña denboraz. Lagundu zien guziei animako gauzak zuzentzen; ekusi zuen zer zen bakoitzak zuen gaitza; garbitu ziozkan zituenari bere zauriak eta lotu ziozkan zezaken ongiena; ta egin zion bakoitzari gaizki arkitzen den seme maite bati am on batek legikon guzia; ta egin zion San Frantzisko Xabier'ek ari au yaitsaldi artan ez ezik, gerozko egun guzietan, ta eriak an il edo sendatu arte guzian.

Bein bakarrik au egitea ere, urikarizko lan, ekusten dezun bezain andia zen. Baña au bera beriz ta beriz, ta askotan ta askotan, ta azkeneraño, San Frantzisko Xabier'ek egin zuen gisan, egitea ¿zer izanen zen? Santuaren urikaltzak zegiken gauz andienetatik bat. Eta oña, norañokoa S. Frantzisko Xabier'ek ontzian sartu zen egunetik agertu zuena.

Emen agertu zuen urikaltz bera izan-  
du zuen S. Frantzisko Xabier'ek ontzira  
baño len, ta ontzitik atera, ta beti bere  
bizi guzian. Ontzira baño len S. Igna-  
zio'rekin ta bere beste lagun guziekin  
Venezia'n bizitu zen denboran, bizitu zen  
*sendatu ezin diranena* zeritzan ospital  
batean. Ba-zen orduan an zenbait eri  
agitz izugariren artean, materi ta ustel-  
tasuna zerion bat. Lenbiziko aldian au  
ekusita, nastua gelditu zen Santuaren  
baren guzia; ta bere burua eskuratzeko,  
eta Kristo Yaunaren izenean eriarekin,  
an gis artan arkitu ba'lu, Kristo Yaun  
berarekin egiñen zuena egin naye, eriari  
bere zauria agertu, ezpañak gañean eza-  
ri, ta txupatuz, kendu zion zerion zikin-  
keri guzia. ¿Ekusten dezu nolakoa  
lendabizitik ere S. Frantzisko Xabier'en  
eri gaxoekiko urikaltza? Bada gisa be-  
rekoa, ta gero, lenbiziko ontzian ekusi  
duguna bezalakoa izandu zen beste ontzi  
ta ospital guzietan agertu zuena.

Eri gaxoekin bezain urikaltia izandu

zen beste beartsu guziekin S. Frantzisko Xabier. Itsasoz dabilzanak irabaz an-diak egin naye, galtzen dute askotan zutena, ta gelditzen dira gabe ta beartsu; ta berak il ta, edo bestetara yoanta, uzten dituzte beren itxeko gaxoak zer yan ez dutela, ta beren animak eta onra galtzeko bidetan sartuak. Anitz eritan sartzen zen S. Frantzisko Xabier; ta era onetako beartsuetatik arkitzen zituen nork daki zenbat; eta beartsuetarako zuen onginayak eta urikaltzak etzion uzten bideren bat az oriei lagundu bage. Laguntzen zien zenbaiti kalez kale ta itxez itxe ibilita limosnan biltzen zuenarekin. Laguntzen zien besteei, Portugal' koei kartak egin ta andik bidaltzen zioten diruarekin; ta gañerako guziei, Indi berean zituen adiskide dirudunei beartzuena eskatzen ziela. Baña etzien beartsu gaxoei emaleen diruz laguntzen, emale berak kaltear uzten zituela.

¿Nola zen au? diozu zuk. Santu berak andituz emalen dirua edo ondasuna.

Zerbait eskatzen zuenean, ematen zion batak berez eskatzen zion dirua; ematen zion besteak, ar zezan berak nai zuena, diru guzien giltza; ta batari ta besteari milagroaz anditzen zien beren dirusala, edo seguratzen zien itsasoz bidaltzen zuten oyaldia, edo oyaldiaren saltze ona. Ta zeren limosnaz ematen zien S. Frantzisko Xabier'en eskuz beartsu gaxoei zerbait diru, beren kutxan arkitzen zuten len zutena baño agitz geyago, edo, nai bezala, saltzen zituzten, bestela salduko etzituzten, edo itsasoan galduko ziran oyaldiak eta merkantzak. Ora zein andia emale onekiko ta emaleen dirua artzen zuten beartsu berentzat S. Frantzisko Xabier'en urikaltza ta karidadea.

Len zena, ta len baño ere agitz urikal-tiagoa da gaur beartsu gaxoentzat eta emale onentzat S. Frantzisko Xabier; ta dutenak, beraren izenean ematen ba'die beartsuei beart dutena, seguratuko dute len zutena; ta andik edo emendik bilduko dute gañez zerbait, baita zerurako anitz

laguntz ere, Kristo Yaunak esana dadu-  
kan bezala; ta beartsu gaxoei, ari oriek  
eskatu ezkeru, zuzenduko die nolerebait  
bea' dutena. Yangoikoak diola bakoit-  
tzari, bere lan au bea' bezala egiteko  
grazia. Bai a'ren, bai.

---

---

## BEDERATZGAÑEN EGUNEKO

### IRAKURALDIA

**Gaya. Erdits uste osoan ta eskutik  
utzi bage eskatu bear zayo**

#### **S. Frantzisko Xabier'i gauza**

*Modicae fidei, ¿quare dubitasti? Math. 14, 31*

Beren otoitzan anitzek egiten dute bere lan batean apostol S. Pedro'k bein egin zuen utsa; ta beren uts au atera artean, ez dute erdisten eskatzen dutena. Itsas aseretuak apostol guziak beren ontzian agitz gaizki zerabiltzan batez, agertu zen ur gañean Jesus; ta len baño kezkatuagoak gelditu ziran ura ikusita; zeren gaitzen bat egitera zetoñen duendea zela uste zuten ekusten zutena. «*Ni naz*»

— ots egiten die Yesus'ek apostol izutuei — «ta ez da zer asalduta».

Au adituta; «*Zu ba'zara* — erantzuten dio S. Pedro'k bere Maisu Yesus maitagarñari — *ba-noa oñez Zugana* — *Ni naz, ta ba-zatozke* — esaten dio Yesus'ek S. Pedro'ri. Yesus'en bai au adituta, soñeko guziak gañean zituela, ta oñetakoak kendu bage, ontzitik saltatu, ta idorean ba'lebil bezala, itsas gañean asi zen S. Pedro lasterka. Ta Yesus'en aldera zenean, nor zen bera berez ari adirazteko, baztertu zuen Yesus'ek bere milagroa (bada Yesus'en milagro zebilen, zebilen gisan S. Pedro), ta asi zen oinpeko urean sartzen ta ondatzen. Ta zeren igerian ibili nayagatik, agitz izugarña zen zebilen aizea, ta ezin geyagorano asaldatua arkitzen zen itsasoa, ezin zebilken; ta zena ikaraturik, esaten dio Yesus'i; *Yauna, lagun zakizkit; galdua naz bestela*. Ta bereala Yesus'ek eskua luzatu, ta besotik artu, ta *uste gutiko gizona, ¿zerk beldurtu zaitu?* esan ta

eraman zuen bere ontzira; ta biak aratzean, gelditu zen aizea, ta palakatu zen itsaso aserea.

Aldi onetan S. Pedro'k bezala, uts egiten dute otoitzgile anitzek beren eskantzan; eskatzen asi, ta laster erdisten ezpa'dute eskatzen dutena, erditsiko dutelako ustea erdi galdu, ta gabe geldituko diralako beldur' andiarekin gelditzea. Ta uts au egin ezkerro, egin oi dute besterik ere; bada geroz epelki ta nagiro egiten dute egiten duten otoitza. Aldi onetan bere beldur'arekin etzuen S. Pedro'k egin bigaren uts au; bada orduan ez itotzeko, S. Pedro'k egin zuena zen, ur gañean iduki zezaken Yesus'i lenbaitlen ta indar' andiarekin bere laguntza eskatzea. Au da zerbaiten bearean arkitzen denak bere otoizaldietan egin bea' duena; beragandik zenbat ere urutiago gauza, anbat bizirago Yangoikoari eskatzea; ta ark au egitea. siñisturik dena den bezala; edo Yangoikoak, eta orobat Yangoikoaren Santuak, askotan ez aditu egiten



dutela, ekusi artean norañokoa den eskalearen ustea; ta geyagotan ta bortizkiago eskalari bere gauza eskaraztea, ta gero gauza agitz obetua, edo ura baño ordain ohea ta zerurako anitz laguntz berari ematea.

Au zekienak bezala, S. Frantzisko Xabier'ek emen bizi zen denboran etzuen galtzen bein ere Yangoikoari eskatzen ziozkan gauzen erdits ustea, ez eta munduko peririlik andienetan ere; ta bein Yangoikoari bere laguntza eskatuta bere egitekoz, sartu zen beldurik bage Mairuaren Islan, esan ba'zioten ere aratzen ziranei bizia kentzeko, izuriz ta benenez beteak zebiltzala islako gizonak; ta beste aldietan besterik etzuenean, Txina'ra, Yapon'a edo beste urutiren batera yoa-teko, sartzen zen edozein mairuen edo jentilen ontzian, Yangoikoak, mairu jentilak ez nayagatik, ontzia ara zuzenduko zuelako ustean; ta zuzentzen ere zuen, ontzi yaunak nai ta ez. Gauz orientan zuena, zen beste gauz guzietan

S. Frantzisko Xabier'ek zuen ustea; ta bat zen beti eskatzen zituen gauzen bu- kantza, berak nai bezalakoa edo agitz ohea.

Au bera da berari zerbait eskatzen dionak aritu bear duen bidea; eskatzen diona edo ura baño obeki dagokan gau- za erditsiko duelako uste osoan eska- tzea; ta eskatzen dion gauza zerbait lu- zatuagatik, gis berean bere eskantzak egitea. Au da eskale on guziak egiten dutena; ta ez da munduan Yangoikoaren eskale ona, bage ekusi duenik. Erditsi nai ba'dezu, bada, eskatzen dezuna, izan zaitez eskale ona; ta izanen zara, egiten ba'dezu S. Frantzisko Xabier'ekin itsu batek bein egiña.

Beste langileen artean ba'dira mun- duan gañeko aizea argiz ta polbor soñuz betetzen dakitenak. Argi-soñugai oriek egiten dituzte egun andietarako, ta atse- giñezko berri andiak etortzen diran zen- bait alditarako. Gai oriek egitea ez da neke andizko lana, baña bai perilezkoa.

Bada paperez ta polboraz egiten diranak dira artako gayak; eta polbora, dakizun bezala, bazteren éretzalea da. Koeteen izena dute aizeko soñugai argigile oriek. Orien egile eder bat arkitzen zen, San Frantzisko Xabier ibili zen Indietan; ta polbor zati bat bere aitziñean zuela, lan ari zen batez, polborak sua artu ta utzi ziozkan éreak bere bi begiak, eta gelditu zen itsu egiña. Oña suarena; batzuei argi egitea, ta bestei argia kentzea.

Langile oni berea kendu zionetik, bukatu ziran onen lanak, eta gelditu zen lanezko irabazbiderik bage, ta yateko zerbait biltzeko, eskeko bidea baizik etzuela. Ta alkeak edo lotsak lenbizian gogoitzen ba'zion ere, beñak azkenean arerazi zion bide au; ta emendik atera bage, ibili zen zenbait urtez, urikariz ematen ziotenaz bere yan edanak egiten zituela; ta bere bizian besterik zezalako asmorik ere aritzen etzuela.

Bide zuen S. Frantzisko Xabier'ekin zerbait debozio; bada bein agertu ta esan

zion Santuak; «¿nai dezu nik zure begiak sendatzea ta len zenuen ekuste berarekin nik zu uztea?» — «¿Jesus nere, Santua, zer itsuri galdetzen zayo au?» erantzun zion itsuak S. Frantzisko Xabier'i—; «nai dut, bai, ta agitz alere; ta ez dakit zer negiken nik au erdisteagatik.» «Ori bada, ta zoaz»—esaten dio S. Frantzisko Xabier'ek—Kotata'ko nere elizara; ta ango nere aintzur imajinaren aitziñean erditsiko dezu nai dezuna.

¿Zer atsegintza berri onekin itsu gaxoak artu zuena! Au artu, ta bereala artu zuen Kotata'rako bidea. Sei lego bide ziran aren itxetik Kotata'ra. Bidean batu, ta nora ziyoan galdetzen zioten guziei erantzuten zien; Kotata'ra S. Frantzisko Xabier'en eskuz nere begi ereak sendaturik ekustera, ta len nuen ekuste onarekin gelditzera; ta milagro ekusi nai dutenak, ots, betoz nerekin ara. Zenbait, aren esanez iri egin, ta yoan ziran beren bidez aitziñat, itsuak zionez kasorik egiten etzutela; ta beste zenbaitek artu zuen,

itsuari zeñ aizkola, Kotata'rako bidea, ekusi nayezen itsuarekin an S. Frantzisko Xabier'ek egiten zuena.

Bideko guziei esan ziena esaten zien itsuak Kotata'n eritañei ere; ta eriko ta bideko anitzekin sartu zen itsua S. Frantzisko Xabier'en elizan. Eraman zuten S. Frantzisko Xabier'en aldarera; ta ango imajinaren aitzinñean belaunikatuta, asi zen zekizkien otoitz guziak esaten, ta S. Frantzisko Xabier'i begietako osasuna ta ekuste on bat eskatzen ta eskatzen. Noizean bein goititzen zuen burua, ta giratzen batera ta bestera, ekusten ote zuen ekusi nayezen; baña ekusirik arako bidea arñtu zuenean baño geyago etzuela ekusten, itzultzen zen bere otoitzetara, ta otoitz denbor luzearen buruan egiten zuen len egiña. Baña bere al egin ta ibiler guziekin anitz orduren buruan atera zuena zen, elizako guziei bere begizulo utsak erakustea, ta Kotata'rako bidea arñtu zuenean bezain itsu gelditzea.

Belaunekin anbat orduz luñean ego-

teak, egin zituen adiña ezezo ta otoitz egiteak, ekañi zuen ango bere arazoak, eta ordu artaraño egin zuen barurak, nekaturik utzi zuten eri gaxoa, ta yateko zerbait arñu beañ andi arekin; ta ilunabarëan, «ez du oraindik Santuak egin bere egitekoa, ta pazientzi», esan, ta arñu zuen ostaturako bidea, bidean zenbait ist eta iri egiten ta esaten ziotela; «itsuak egin du amets ekusi beañ duela; baña amets utsa da itsuaren ekus uste guzia.»

«Ez da amets, ez», zion itsu gaxoak, «nere ekus ustea; ekusiko dut berdin S. Frantzisko Xabier'ek nerekin milagro egiten duela.»

—«Bai, on dagizula. Gauñ bezala, zuk ekusiko dezu noski bigañ ta etzi ta datozen egunetan ere» — esan ta utzi zuten bere ostatuan, edo urikariz eman zioten itxe batean, elizatik araño berarekin ibili ziran zenbaitek; eta isilik egondu ziran beste guziak. An sarñu, ta zerbait arñu, ta egin zuen itsu gaxoak al zuen loa; ta urëngo eguna agertu orduko, yoan zen

beriz bere elizara, ta S. Frantzisko Xabier'en aldarera.

Ango imajinaren aitzinean belaunikatu, ta asi zen leneko eguneko bere eskantz, erezo ta otoitzak egiten; ta egondu zen an egun guzian, bein yaiki, bein yañi, bein belaunikatu. bein bere begizuloak alde batera, bein bestera giratu, bein ere pits bat ekusten etzuela; ta ezkenan andik atera zen, lenbiziko egunean bezain itsu, egun artan baño ere agitz nekatuagoa, ta zerbait arñu beñagoa, ta orduan baño ere ist eta iri geyago egiten ziotela.

Al ere, etzen aitzen itsu gaxoaren ekusustea, ta S. Frantzisko Xabier'en milagroa bere baitan ekusi naya; ta uringo eguna agertu orduko, yoan zen irugañen aldian S. Frantzisko Xabier'en eliz-aldarera. Baña au ere, besteak bezain ongi an igaro, ta gelditu zen len bezain begibage ta ekusterik etzuela; ta andik itxerako bidean mutil txarñak urbildu ta beren eskuz arpegian zapladak eman ta galde-

tzen zioten: itsua, zenbat beatz eri ditu nere eskuak? Eta andiak ere egiten ziozkaten beren ist modu ta iri beñiak; eta itsu gaxoak guzia zeraman eme emeki Yangoikoaren ta bere Santu andi San Frantzisko Xabier'en izenean, ta beti arkitzen zen bat berean ta bere ekus uste osoan.

Laugarren eguna etorri, ta yoan zen itsu gaxoa eliz ta aldar berera; ta goizetik aratseraño leneko egunetako gauz onetan ta eskantz beroetan an egondu, ta atera zen, sartu zen bezain uts eta begi bage. Ta au bera agitu zitzayon urngo ta urngo ta beste, ta zortzigarren egunean ere. Orduko ta lenago ere, amesleari bezala, begiratzen zioten ekusten zuten geyenak, eta egun oro egiten ziozkaten ist eta iri beñiak, eta iri agitz astunak.

Au guzia ekusi ta ere, egondu zen itsua, ur baztereko aitz andi gain bera datoñen bat-olast guziak zeatu ta ere, igitzen ez dena bezala, bere sendantz



uste osoan. Ta zazpigarren egunetik sendatu artean egondu zen elizatik atera ere bage. Bada egun artan, anitzek ekusten zutela, aldar aitzinean yaiki, ta esan zion S. Frantzisko Xabier'i: «San Frantzisko Xabier, zuk ni sendatu artean, ez naz emendik aterako; bada, ekusten dezun bezala, onara nintzanean baño agitz gaizkiago arkitzen naz gaur. Urrikari ninduten, alabaña, len, ta ematen zidaten, batak bear nuen au, ta besteak ura, ta ez nintzan bear nuena bage arkitzen; ta emen egun oro eskatu dizudana bage arkitzen naz, ta ist eta iri egiten didatela. Ezpa'nazu, bada, guzien irigari egiña ta gosez ila ekusi nai, indazu anbat aldi eskatu dizudan ta erditsi artean eskatuko dizudan bista ta ekustea».

○ Egin zuen esan zuena; bada, uringo irur egunetan egondu zen elizan al zituen otoitz guziak egiten; ta irugarren eguneko aratsaldean, edo bere otoitzetako bederatzurunenaren bukantzan iduritu zitzayon

sartzen ziozkatela bere zuloetan bi begi, ta begi, argi ederez beteak, eta ekusten zituela aldareko Santua ta elizan ziran gizon guziak. Ekusten ere zituen ta. Au ekusi ta, yaiki ta asten da oyuka, «milagro, milagro» esaten, ta batetik bestera lagunik bage ibiltzen, ta leneko bere ezagunak besarkatu, ta bakoitzari bere izenez ots egiten. Arítuen gisan elizeko guziak, eta berriaren otsarekin araziranak begiratu ta ekusi zuten, sekulan gizonek izandu zituen begirik ederanak baño ederagoak zirala S. Frantzisko Xabier'ek eman ziozkanak. Eta eriz eri ibili zen bere begi ederak erakusten, ta San Frantzisko Xabier'en milagro au bere ta ekusten zuten guzien poz eta atsegintz agitz andiarekin banatzen.

Ora zer den Yangoiko urikalti maitagarriari eskatzen zayon gauza erdisteko, itsu onek egin zuen gisan, bein ta beriz ta beriz, ta erditsi artean, erditsi uste osoarekin Yangoikoari, edo Yangoikoaren Santuei eskatzea. Egizu, bada, zuk

ere; ta ez, anitzek egiten dutena; bein edo beriz gauza eskatu, ta erdisten ezpa' dute, aide bat uztea. Ta erditsiko dezu eskatzen dezuna, edo ura baño ohea den besteren bat. Yangoikoak dizula au zuk, gaurko itsuak bezala, egiteko grazia.

Bai, aŕen bai.

---

## AURKIBIDEA

---

### Oñaldiak

Irakurleari. . . . .	3
S. Franzisko Xabief'en Bederatzuñuneko Irakurñaldiak . . . . .	7
Lenbiziko Egunerako Irakurñaldia. . . . .	9
Bigañen Egunekeo Irakurñaldia . . . . .	21
Irugañen Egunekeo Irakurñaldia. . . . .	34
Laugañen Egunekeo Irakurñaldia . . . . .	48
Bostgañen Egunekeo Irakurñaldia . . . . .	62
Seigañen Egunekeo Irakurñaldia . . . . .	75
Zazpigañen Egunekeo Irakurñaldia . . . . .	88
Zortzigañen Egunekeo Irakurñaldia. . . . .	101
Bederatzgañen Egunekeo Irakurñaldia . . . . .	114

---

## BEDERATZURUNA EGITEKO OTOITZAK

*San Franzisko Xabier'en Bederatzuruna egiteko egunik egokienak (Martxo) Epailaren 4-garënetik 12-garënerakoak dira. Egun oyetan egiten danari: «Grazi edo Eskeñaren bederatzuruna» deritzayo.*

**Egin:**

Kurutze santuaren...

Jesukristo nere Jaun...

### Otoitza

¡Done guztiz Maitagafi ta Maitalaria! Zurekin auzpezturik aguf egiten diot Jaungoiko aundiari. Pozturik eman zizun eskeñ ain berarizkuakgatik eta orain zeruan daukazu atsegin zoragafiatatik eskeñik aundienak egiten dizkiot Jaun berari: eta bizitz eta eriotz ona zure bitartez irixteko laguntasuna eskatzen diot; baña batez ere bederatzufun onetan erditsi nai detana (*egin emen*

zer eskaera). Baña au Jaungoikoaren goratasune eta nere animaren onerako ez-pada, eman nere onik aundienerako izango dana.

Esan: iru «Aita gure», iru «Agur Mari» ta amar «Gloria Patri».

¡Franzisko Xabier doatsua, Indietako Apostolu anima-zale naiz itzez ta naiz egitez ain indar aundikua! Zure laguntasun eske datortzkizuni erakutsi oi dieztezun efukitasunagatik, eta siniste-bagekoai amar urtez Jaunaren itza agertzeko indar eman zizun anima-zaletasun sut-suagatik auzpezturik eskatzen dizugu: Jaunarekin bitarteko izan zaitezela siniste-bagekoak argitu, sinistausleak eta banatuak Eliz-amaganatu, oker dabilzenak onbideratu eta zuzenak zuzenagotu ditezen. Eskatu Jaunari garbitokiko animen alde; eta baita kristau-arteko agintarien benetako bake ta alkartasunagatik ere. Indazu beriz niri lagun urkoa inoiz oker bidera ez eramateko laguntasuna; onela, itzez eta erakutsiz, Jaunak ipini nauen bizibidean zure antzekoa, izanda, zure lagun izan nadin zeruan betiraunde guzfan. Alaxe.

**SANTUAK ASMATU TA SARI ESAN OI  
ZUAN OTOITZA**

Gauza guztien Egile, betiko Jaungoikoa! Oroitu zaite zeuk zere antzera egiñak dirala siniste-bage ta pekatarien animak. Begira nola suleze? betetzen ari diran; eta ez aztu anima oyek zeruratzeafen ainbeste neke igarota bere odola ixuri zuala zure seme Jesukristo'k. Ez utzi siniste-bageko ta pekatariak zure semea ta gure Jauna aintzakotzat ez artzen; egizu, afen, anima on eta zure seme guztiz Donearen emazte Eleizaren eskariak entzun da, azturik euren sinismen-eza, jainko gezuñezko ta gaiztakeriak, Jesukristo ezagutu ta biotzez maitatu dezatela bera dan ezkeroko gure bizitz ta befbizitza, gure beferoste ta askatasuna. Gorantza Berari betiraunde guztian.

P. Eskatu Franzisko Donea gure alde.

R. Jesukristoren agintzen duin izan gaitezen.

### Otoitza

Efi ta efi-agintariei zure izen deuna erakusteko Indietako Apostolu Franzisko Deuna gra-

ziazko ontzi autu dezun Jaungoikoa! egizu, zure goratasunaren zabaltzale afigafia lufean guftutzen degunok geure zoriontasunerako bitarteko zeruan euki dezagula, Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Alaxe.

Gauza guztien Egiile, betiko Jaungoikoa!  
Orain xaine zure ontxera egiten dirala  
siniste-paue ta pekatarien animak. Begira nola  
sutez? betetzen ari diran: eta ez aizu animak  
oyek xeruratsaren sinbeste meke igarota bere  
odola izan xula zure seme Jesukristo k. Ez  
uzi siniste-paueko ta pekatarien zure semea ta  
gure Jaun sinistakotat: ez alizen: egizu, orain,  
anima on eta zure seme guziaz Donatzen emazte  
Elixaren eskuzak emazu: da ezuniz, euren  
sinisten eta jainko gurenezko ta gaitzakentia,  
Jesukristo exagutu ta bidez naitan dezatela  
bere dan ezkeru gure dixit ta berbitzua, gure  
berfiole ta askatasuna. Gorantze berari beti-  
tandu gutilan.

Ótoitza

Eñi ta eri-agintariel zure ian dena eskus-  
tako indietako Apostolu Franzisko Denna gra-





